



**Altsasuko auzia apirilaren 16tik 27ra epaituko dute Espainiako Auzitegi Nazionalan / 7**



**Abenduaren 9ko Parisko presoan aldeko mobilizazioan parte hartzeko deialdia egin dute / 9**

**Euskaraz ikasten ari diren haurren gurasoendako tresna lagungarria aurkeztu dute: [www.era.eus](http://www.era.eus) / 5**

**Otsaportilloko lezeak eta DNA azterketek 1936an eraildako beste hiruren izen abizenak eman ditu / 13**

**Eskuz binakakoan Ezkurdia eta Zabaleta elkarrekin ariko dira. Martija Altunarekin mustuko da / 16**

**Sakanako Garapen Agentziak argazki bikoteen lehiaketa antolatu du; zaharrak eta egungoak / 23**



**Ziordiko galbarioa 41 urte desagertuta egon ondoren, Fernando Fustek zaharberritu du / 20**

**Udazkeneko dantza jaialdia eskainiko dute Amalur eta Orritz dantza taldeek Irurtzunen bihar / 23**

**Bakaikuko Gure Esku Dagok galdeketaren urteurrena ospatzeko astebururako egitaraua prest du / 8**



## Bidezko gizarte baten alde

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunean kontzentrazioak eta adierazpenak / 2-3

# Udal adierazpena azaroaren 25a dela eta

Elkartasuna adierazi diete “erasorik jasan edo eraildako emakumeekin eta sexu indarkeriari aurre egiten dioten emakume eta neskei”. Jendartea gonbidatu dute “emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsi eta deuseztatzeko konpromisoa hartzeko”

## SAKANA

Emakumeen kontrako indarkeriari eskura dituzten baliabide guztiak aurre egiteko konpromisoa agertu dute Nafarroako laurogei toki entitatek. Horien artean daude Arakilgo, Arbizuko, Etxarri Aranazko eta Altsasuko udalak. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko presidente Pablo Azkonak esan zuenez, ekitaldiarekin “toki entitateek emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako borroka berresten dugu”. Erakundeetako ordezkariak joan den ostira-lean elkartu ziren eta osoko bilkuretan onartutako adierazpen bateratua irakurri zuten.

Udal ordezkariak onartutako adierazpenean “emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten diskriminazioen ondoriozko sexu indarkeria mota guztiak” gaitzetsi dituzte. Aldi berean, “administrazio publiko garen aldetik, aktiboki lan egiten jarraitzeko emakume eta nesken kontrako zaurgarritasun eta indarkeria egoerek sortzen dituzten desberdintasun guztien aurka” egiteko konpromisoa hartu dute.

Aldi berean, Europako Batasunean “asiloa eskatu duten emakume errefuxiatuen egoerari buruzko Ebazpena bete da-



Nafarroako 80 udaletako ordezkariak adierazpenaren aurkezpenean. UTZITAKOIA

dila” exijitu dute. Genero indarkeriaren kontrako estrategia integratuak aplikatu behar direla onartzearekin batera jaso zen “emakumeak inskribatu eta dokumentatu behar direla modu indibidualean haien segurtasuna eta autonomia bermatzeko”. Eta Europar Batasunean asiloa “lortzeko jazarpen eta motibo baliagarri gisa aitortu behar direla, besteak beste, sexu eta genero indarkeria, emakumezkoen mutilazio genitala, nesken edo emakumeen salerosketa, ezkontza behartuak, ohorezko

krimenak, estatuek babesten duten sexu diskriminazioa”.

## Adierazpena

Feministen aldarrikapena bere eginez, Nazio Batuen Erakundeak duela 18 urte erabaki zuen azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria ikusarazteko eta gaitzesteko eguna izendatzea. Horren bidez gobernuak, instituzio publikoak, nazioarteko erakundeak eta gizarte zibilari hausnarketa egin eta konpromisoak hartzeko gonbidapena egiten zitzaion. Toki entitateen

adierazpenak dioenez, “18 urte hauetan indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmendu dugu, horixe baita emakumeenganako menderatze harreman asimetrikoen adierazpenetako bat, zeinaren gainean patriarkatua eraikitzen den”.

Eta gaineratu dute, “azaroaren 25 bakoitzean munduko leku guztietan emakume eta neska izate soilagatik emakumeek eta neskek aurre egin behar izaten dioten indarkeria mota eta adierazpen anitzak ikusarazi nahi izan ditugu, indarkeria hori gertatzen den esparru horiek guztiak identifikatu eta haietan sakondu dugu, eta indarkeria hori deuseztatzeko baliabideak eta neurri espezifikokoak exijitu ditugu”.

## Errefuxiatuak

Aurtengo adierazpenak emakume errefuxiatuei egin die aipamen berezia. Europar Batasuna errefuxiatuak birkokatzeko ezarritako eguna igaro dela gogorarazi dute. “Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak sortzen eta birsortzen dituen egitura patriarkalarekin berarekin lotzeari utzi gabe, indarkeria hori are larriagoa da neska eta emakume errefuxiatuak bizitzen ari diren zaurgarritasun handiko egoeretan”. Gaineratu dutenez, “genero desberdintasunak gure garaiko giza eskubideen urraketa iraunkorrenetako bat izanik, gerra eta gatazka armatuko testuinguruetan desberdintasun horien ondorioak onartezin bihurtzen dira nazioarteko komunitatearen iriziz”.

Europara iristen diren emakume eta neska errefuxiatuen “bal-dintzak eta errealitateak pre-

senteago egon beharko lirateke administrazio guztien agenda politikoetan”. Leku batetik bestera mugitzean emakumezko horien egoera gero eta okerragoa dela nabarmendu dute; “neska eta emakume errefuxiatuek honako egoera latzak pairatzeko arriskua izaten dute: sexu indarkeria, oinarritzko zerbitzuetarako sarbidearen ukazioa (osasuna edota hezkuntza), gizarte bazterketa, ezkontza behartuak, haurduntza goiztiarra, sexu edo lan esplotaziorako salerosketa sareetan harrapatuta izatea, eta abar”. Horren aurrean, “neska eta emakume guztiei aukera berdintasuna eskaini eta bermatzeko betebeharrak, politiko eta etikoari erantzuteko beharra eta premia dugu, zernahi ere den haien jatorria eta egoera”.

## Irurtzungo Udala deia

Udalak bere egin du Euskal Herriko mugimendu feministaren mezua.

“Justizia egiten ez duten epaitegien gainera, gure bizipenak ukatzen dituzten jendartearen errelatoen gainera, hainbat hedabideren morbo eta egiturazkoa den biolentzia matxistaren desitxuratzearren gainera... zure egia gurea egiten dugu”. Udalak bihar, 12:30ean Tahona ondoan egingen den bilkuran parte hartzea deitu. Baita 20:00etan, Iruñean egingen den manifestazioan ere.

# Ostiralero SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera  
Metropoli forala  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

## Gaurko gaiak:

- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna
- Abenduaren 9ko Parisko mobilizazioaren aurkezpena
- Altsasuko auzia

107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE

## Ikasleak eta emakumeen aurkako indarkeria

Ikastetxeetan eraso sexisten inguruko tailerra bukatu berri dute eta komedia ikusiko dute

### ALTSASU

Gazteen artean eraso sexistak saihesteko Altsasuko Udalak urtero Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako eta Lanbide Heziketa institutuko ikasleei zuzendutako programa antolatzen du. Ikastetxeetan taillerreko saioak aste honetan despetitu dituzte eta, ohikoa denez, ikastetxe guztietako ikasle guztiak bat eginen duten jarduera izanen da emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela eta.

Heldu den asteazken goizean Iortia kultur gunean elkartuko dira ikasleak Tdiferentzia antzerki taldearen *Bi ero diskotekan* antzezlan ikusteko. 09:00etan gaztelaniazko emanaldia izanen da. Hura bukatutakoan, 11:00etan, kultur guneko ezkaratzean ikasle guztiak elkartu eta haiek sortutako marrazki, esaldi, argazki eta bestelakoekin indarkeriaren kontrako esku morea osatuko dute eraikineko kristal batean. Horren ondoren, 11:30ean, antzezlan euskaraz ikusteko aukera izanen du beste ikasle talde batek.

Maitasuna eta umorea zati berean duen komedia horretan nerabe batek ama eta izebarekin topo egiten dute parrandan.

## Indarkeria jasan duten 9 emakumeren testigantza

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela eta Etxarri Aranazko Udalak *Volar* filma emanen du gaur 21:30ean, kultur etxean. Emakundek ekoiztu eta Bertha Gaztelumendik zuzendu duen filmean indarkeria jasan duten bederatzita emakumeren testigantzak jasotzen dira, landetxe batean asteburu bat ematean.



Altsasuko Udaleko Berdintasun batzordeko Virginia Alonso, Arantxa Bengoetxea, Julia Cid eta Pedro Jimenez.

# Udalaren Berdintasun Zerbitzuak 25 urte beteta

“Emakumezkoen sustapena” egitetik “gizarte bidezko eta zuzenago lortzera” pasa da; hau da, “populazioaren gehiengoa den emakumezkoen parte hartzea eta hiritar eskubideak” bermatzen ahalegintzera pasa da

### ALTSASU

1992ko azaroan izan zen, Jose Manuel Goikoetxea alkate zela eta Juakina Zubiria berdintasun zinegotzi, Altsasuko Udalak Emakumeen Bilgunea sortzea erabaki zuen. Atzean mugimendu feministaren bulkada izan zen. Hurrengo urteko ilbeltzaren 28an aurkeztu zuten zerbitzua jendaurrean aipatu zinegotziak, Idoia Goikoetxea Gomez teknikariak eta Mari Luz Oiarbide liburuazainak. Hiru hilabeteko probaldia zen. Emaitzen arabera udalak segitzea edo ez erabakiko zuen. Horregatik, zerbitzuaren berri emateko 468 gutun bidali zituzten.

Garai hartan Altsasuk 433 langabe zituen eta haietatik 323 emakumezkoak ziren. Langa-beetatik 304k oinarritzko ikasketak zituzten. Zentsuaren arabera 30 eta 65 urte arteko 42 emakumezko analfabetoak ziren eta 949k ez zuten ikasketarik. Langabezia eta ikasketa maila baxua ziren emakumezkoak an-

tolatzen ziren ikastaroetan izena ematera bulkatzen zituenak. “Parte hartze pasiboa da, emakumezkoak hartzaile soilak dira. Taldeak ez dira egituratzen, klaseak bukatzean desegin egiten direlako” azaldu zuten.

Horregatik, emakumei zuzendutako jardunak bilduko zituen bilgunea sortu zen. Helburuak ziren emakumezkoak “familia mundu mugatutik ateratzea, bizi duen errealitatearen ezagutza kritikoa izan dezala; emakumezkoek gizarte bizitzari buruzko eta bere ahalmenei buruzko ideiak izan ditzala lortu nahi da. Harremanetan jarri, euren jarduerak koordinatu, erakundeek elkarlana eskatu eta eskerra eta behar berriak sortzea”.

Udaleko Berdintasun Batzordeko kide Arantza Bengoetxea, Julia Cid, Virginia Alonso eta Pedro Jimenezek urteurrenaren harira agerraldia egin zuten asteartean. Esan zuten, zerbitzuaren lana “gizarte zuzenago, berdintasunezkoago baterantz

jotzeko egin da”. Guztiek ere Altsasuko mugimendu feministaren lana aitortu zuten, izan diren aldaketan eta politiken sustatzaile izan delako.

### Aldaketak

Mende laurdena ez da alferrik pasa eta emakumezkoen arloan “politika publikoak zentzuz eta helburuz aldatu dira”. Hasieran “arloan publikoan emakumezkoendako topagune izan zitezkeen jarduerak antolatzen ziren. Hori ez da gure lana orain, dagoeneko emakumezkoek interesatzen zaizkien jardueretan parte hartzen dute”. Hasiera hartan zerbitzuetik aldarrikapenak ere egin ziren: familia orientazio eta sexu heziketarako zentroa jartzea, pediatria, haur eskola... Egun, ordea, zerbitzuaren zeregin nagusia administrazioko beste arloekin eta erakundeekin lan egitea da, “berdintasuna haien lanean txertatu dezaten”.

Batzordeko kideek ikastetxeekin egiten den lana nabarmen-

du zuten. LHko 4. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako hezkidetzeta programa eta sexu erasoen inguruko beste programa, DBHko 4. mailako ikasleei zuzenduta dagoena. “Aurten gainera, talde horietako irakasle eta gurasoekin saioak egiten ari gara”. Bestetik, musika eskolako berdintasun plana onartzean du udalak. Eta kirol begiraleak, aisialdikoak eta udal teknikari eta ardura-dunak trebatu egin dira.

Indarkeria egoeran dauden emakumei eskainitako zerbitzuan ere aldaketa izan da. “Hasi ginenean mugimendu feministak Iruñean kudeatzen zuen arreta zerbitzu bat besterik ez zegoen. 2001ean hasi zen udala aholkularitza juridikoa eskaintzen, hilean behin”. Gaur egun arreta hori Nafarroa guztirako sistematizatuta dago Arreta Protokolo baten bidez. Legegintzaldi honetan Koordinazio Taldea eta indarkeria egoeretatik bizirik irteten diren taldea sortu eta babestu dute. Gainera, Altsasuko mugimendu feministarekin batera jai egunetako sexu-erasoendako protokoloa onartu zuten 2016. + [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Zerbitzuaren urteurrenaren egitaraua

### Asteazkena 29

- 19:00 Camino que hemos hecho las mujeres en los últimos 25 años. Hizlaria: Arantxa Urretabizkaia idazlea, Iortia kultur gunean.

### Asteazkena 13

- 19:00 Los retos de las mujeres y los feminismos en los próximos años. Hizlaria: Saioa Iraola Urkiola. Iortia kultur gunean

### Ostirala 29

- 25. urteurren festa: zerbitzuaren lanaren lekuko izan diren emakumeen testigantzak, ibilbidearen berri ematen duen bideoa. Gonbidapenak asteazkenetik aurrera Iortia kultur gunean.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Zoria

Askotan harrigarri egiten zait gure hizkuntzak nola gorde dituen gure historiaren aztarnak. Hizkuntza aurre-indoeuroparra izaki, gurean asko dira erromatarren hizkuntza hilaren mailegu zaharrak. Latindar haien zibilizazioak txunditurik utzi zituen nonbait baskoiak. Guaix berari ere haien mailegu den orai (ora) hitzetik dator kio izena. Hauen artean bitxienetarikoa bat augure edo aurispice igarleekin lotzen gaituena da.

Erromatarren artean, Romulo izan zen lehen augurea, txorien hegaldia aztertuz, Jupiterrri bai ala ez erantzuteko galderak egiten zizkion aditua. Erroma Palatino edo Aventinoko muinoen gainean eraikitzearen erabakian adibidez. Zerua lau

norabideetan banatu eta arrano, sai, hontz edota beste txori mota batzuen hegaldiaren edota egindako soinuen arabera jainkoen borondatea ekintza bat edo beste egitearen aldekoa zen jakin omen zezaketen. Bai ala ez, baina ezin jakin kaltegarria edo komenigarria zen, jainkoen borondatea zela soilik.

Ezkerretik zetozen bele, arrano edo bestelako harrapariak baietza zekarten. Gaztelako heroi epikoa dugun Cid ospetsuak ere Burgos uztean ezkerretik doakion belea atzematean aurrera

egitea erabakitzen du. Guretzat, txori onak eta txori txarrak, zoriona eta zoritxarra. Hauen hegaldian atzematen erakutsi ote ziguten ba gure konkistatzaile erromatarrek? Haien ikasle apartak izan ginen seguru, zahartuko ginen haiek ikasten, agure bihurtuz. Augureek zorion eta zoritxarra ikusteko gai baziren, haiek aipatzea ez zegoen sobran norbait uztean. Agur!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubi-dea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

## 91 preso gaixo

## ETXERAT

Behin eta berriz salatu dugu Etxerat Elkartetik gaixo diren euskal preso politikoen kopurua esponentzialki igotzen ari dela denboraren poderioz. Guztira 91 preso ditugu nolabaiteko gaitza dutenak; horietatik 13k (duela zortzi urte baino bost gehiago) gaixotasun larriak dituzte; antzeko baldintzetan beste 8k ez dute nahi beren identitatea jendeak ezagutzea.

Ezin ditugu ahaztu presoena familia eta adiskideen inguru hurbilenean sakabanaketa politikak eragiten dituen ondorioak.

Horregatik gaur publikoki salatu nahi dugu, bereziki krudela delako, Castello I espetxean bere etxetik 550 kilometrorra aurkitzen den Jesus Mari Altable preso iruindarraren kasua. Parkinsonak jota dagoen eta

92 urte dituen bere amari bisita egiteko eskariari uko egin diote. Ezin dugu onartu Castello I espetxeko zuzendaritzak eta Espetxe Instituzioaren zuzendaritzak Txuma Altableri bere senideen bisitak debekatu izana.

Kasu honetan gainera, bere senideengandik gertu egoteko espetxe aldaketa eskatu dezake Jesus Mari Altablek, horretarako baldintzak betetzen dira kasu honetan espainiar Auzitegi Nazionalaren fiskaltzak egindako txostenaren arabera. Horrekin batera Espetxe Zaintzako epailearen jarrera gogorra salatu nahi dugu, Jesus Mari Altableren eskaeraren kontra behin eta berriz prozedura atzeratzen ibili delako.

Europako Parlamentuak duela gutxi onartutako Bergeron txostena aipatu beharra dago kasu honen

harira. Kartzela baldintzak eta ereduak aztertzen dituen txostena 474 aldeko bozka izan zituen eta 109 kontra eta urruntze politikak presoaren senideentzat zigor erantsia suposatzen duela dio. Horregatik euskal presoaren kontrako salbuespeneko neurriak bertan behera uztea proposatzen du.

Bisitak egiteko eta haien senideekiko lotura bermatzeko eskubideak ukatu egiten zaie inposatutako baldintzak ezin dituztelako gainditu. Horregatik Etxerat Elkartetik, sistematikoki urratuak izaten ari diren eskubideak errespetatzea exijitzen dugu eta kasu honetan, salbuespeneko espetxe politikaren arduradunei Jesus Mari Altable bere familiarekin egotea eskatzen dugu.

Etxean eta bizirik nahi ditugu!

## OBJEKTIBOTIK

## Altsasu? Hau ez ote da Araiako sarrera?

Galdera hori egingo diote bere buruari kasu honetan Araiara edo Euskal Herriko beste herri askotara doazen gidariak. Izan ere, Altsasuko auzipetuei babesa emateko, euren izenen gaineratik Altsasu izena ageri da Euskal Herriko txoko eta seinale askotan.



GUAIXE

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzaileak:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza  
**Zuzentzaileak:**  
Felix Alzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus  
**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
**Maketatzaileak:**  
Irene Trecet Obeso  
Ruben Imaz Alcaide  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña

publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEAK:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

# www.era.eus: belaunaldi berrien aukera

Euskaraz ikasten duten haurren familiei euren seme-alaben ikas-prozesua osatzen laguntzeko eta elebitasunean bizitzen laguntzeko plataforma digitala aurkeztu dute. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua da sustatzaileetako bat

## SAKANA

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek, tartean Sakanako Mankomunitateak, www.era.eus webgunea sortu dute, euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak eskaintzeko eta seme-alaben ikas-prozesua osatzeko. Izan ere, familia askok aukeratzeko dute euskarazko irakaskuntza, baina familia horien ingurunea askotarikoa da: familia batzuk euskaraz dakite, beste batzuk, aldiz, ez, edo soilik familietako kide batzuk erabiltzen dute bakarrik.

Guraso askok kezka dute, jakin nahi dute nola laguntzen ahal



Asteazkenean egin zuten aurkezpena. MANK

duten euren seme-alaben hizkuntza-garapenean, non aurkitu ditzatekeen euskarazko produktuak, eta eskaera horiek kontuan hartuta sortu dute euskara zerbitzuek era.eus webgunea. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izan dute proiektua aurrera eramateko. Webgunea asteartean aurkeztu zuten Iruñeko Kondestable Jauregian Marga Erdozain Malerrekako Mankomunitateko ordezkariak, Aritz Romeo Iruñeko udaleko ordezkariak eta Mari Carmen Izkue eta Joseba Segura gurasoek.

## Euskarazko musika, jolasak, aplikazioak, ipuinak, ikastaroak, agenda...

Euskara zerbitzuetako bulegoetara makina bat zalantzekin jotzen dute gurasoek. Zalantza horiek guztiak erantzuten jarraituko dute teknikariek, baina horretaz aparte, zalantza nagusien inguruko informazioa ikusgai jarriko dute www.era.eus web gunean. Eta, jakina, gurasoendako interesgarria izan daitekeen bestelako informazioa ere emanen da.

Finean, euskaraz ikasten duten haurren gurasoei laguntza eta baliabideak eskaini nahi zaizkie: gurasoen ohiko zalantzak argitzeko informazioa emango da, interneten haurrendako prestatutako edukiaren berri emanen da –ipuinak, jolasak, musika, aplikazioak... –, 0 eta 12 urte bitarteko haurrendako eskolaz kanpoko jardueren berri –kirolak, ikastaroak, ludotekak...– eta haurrendako dagoen euskarazko eskaintza jasotzen duen agenda eskainiko da, eskualdeka antolatuta, besteak beste.

## Euskararen eguna

Euskarabideak, Euskararen Nafar Institutuak, Euskararen Eguna dela eta ekitaldiak antolatu ditu lurraldean barna. Altsasun haietako bat izanen da: *Ane eta ohe hegalaria* antzezlanaren emanaldia. Abenduaren 6an izanen da, 17:30ean, lortian.

## Bi sakandarren gaztak munduko onenen artean daude

Arbizuko Araña-Etaioren Juananeko Borda eta Etxarriko Julen Karasatorreren Naparbasok lortu dute izendapena

### ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Londresek Zaporeak azokaren barruan, 30. Munduko Gazten Txapelketa jokatu da. Hainbat kontinentetatik 3.001 gazta aurkeztu dira munduko gazta onenen lehiaketara. 250 epaile izan dira haiek dastatzen eta Idiazabal jatorri izendapeneko eta Artzain Gaztako 54 gaztandegik dominak jaso dituzte; horrek “euren kalitate handia kreditatzen du, eta izenaren eta nazioarteko mailako gure gazten izen ona zabaltzen laguntzen du”.

Munduko Gazta Onenen domina jaso dutenen artean bi sakandarrek ondutako produktuak daude. Bata, Arbizuko Araña-Etaiok egiten duten Juananeko Borda gazta da, Idiazabal mailan brontzezko domina lortu duena. Eta, bestea, Agurainen dagoen Julen Karasatorre etxarriarraren Naparbaso gazta, jatorrizko izendapenak babestutako gazteen mailan brontzezko domina lortu duena. Ez da aurreneko aldia Munduko Gazten Txapelketan Sakanako gaztek aitortza jasotzen dutena.

## Madariaga XVII-XIX. mendeetako euskaraz hizketatu zen

*Navarrorum*. Nafarroako Artxi-boan euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea erakusketa da. Haren programa osagarriko hirugarren hitzaldia izan zen herenegun. Egiarretako Juan Madariaga historialari eta irakasleak XVII., XVIII. eta XIX. mendeko euskararen egoerari buruz hizketatu zen. Madariagaren azken argitalpenak euskararen ingurukoak izan dira: euskararen aldekoen eta aurkakoen antologia bat, ingelesez argitaratutakoa 2006an Nevadako Unibertsitatearekin eta gizartearen eta euskararen azterlan bat XVII. eta XVIII. mendeetan, 2014. urtean Euskaltzaindiak argitaratutakoa.

## Zifra bat eta hitz pare bat baino gehiago dena nola irudikatu?

Euskarak 365 egun. Interpelazio bat da. Lelo bat da. Erroka: nola islatuko zenuke argazk batean

### SAKANA

Euskararen Nazioarteko Eguna da abenduaren 3a. Hala da 1949 urtetik. Eusko Ikaskuntzaren ekimena izan zen izendapen hori egun horri ematea. Azken urteetan abenduaren 3arekin batera astekari honek *Euskarak 365 egun* leloa duten kartelak banatu ditu. Haietako batzuk etxeetako lehioetan, dendetako erakuslehoetan baita autoetan ere ikusgai daude. Sakandarrek euskaraz hitz egiteko gonbidapen hori horrela zabaltzea erabaki dutelako.

Kartela jaso duzue aurreko urteetan. Oraingo honetan zuenetik jaso nahi dugu. Euskarak 365 egun leloa nola marraztuko zenuke? Nola irudikatuko zenuke argazki batean? Dagoeneko ideien bat sortu zaizu. Ederki. Bonbila geroago ere piztu daiteke, lasai.

Marraskia edota argazkia eginak dituzunean eskertuko genizuke www.guaixe.eus web gunean sartzea eta propio sortu dugun Euskaraz 365 egun atalean sartzea. Partekatuz zure mezua sakandarrekin, munduarekin.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Etxe pasiboetarako egokia  
5 9000

Isolamendu nukleo indartsua  
IKD



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

# Makinak Urdiaingo goiko aldean lanean hasi dira

Goienkaldeko sareak eta zoruak berritzeko lanak hiru astetan despedituta izanen direla aurreikusten da. Bukatu diren lanak basoko enborrak kamioietan kargatzeko toki berria eta kanpo santua berritzekoak dira

## URDIAN

Joan den astean iritsi ziren langileendako tramankuluak eta bestelako makinak. Eta aste honetan hasi dira lanean Urdiaingo Goienkaldean. Hornidura sare guztiak berrituko dituzte eta horren ondoren zoru berrituko dute. David Oroz alkateak azaldu digunez, langileek lanak 3 astetan egiteko asmoa dute. Euren aurrekontua 153.600 eurokoa da. Hura ordaintzeko dirua udalak Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko partidatik (47.800 euro), baso salmentatik eta diruzaintzako gerakinetik aterako du.

Despeditzearen direnak kanpo santuko lanak dira. Hilerria betetzen ari zela eta zerbait egin beharra zuen udalak. Hala, urdiaindarrei hilerriararen alde zaharretik gorpuzkiak ateratzeko ia urte bateko epea eman zieten. Batzuek atera dituzte, besteek han uztea erabaki dute. Horren ondoren ekin diote aur-



Langileak Urdiainen lanean.

ten lanei. Kanpo santuak lehen bi maila edo altura zituen. Orain egindako lanekin hilerrri guztia maila berean egonen da. Horretarako, Maudubiako pistaren hasieran egurra kargatzeko egin duten plazako lurra hartu dute

(lan horiek 27.300 euroko kostua izan zuten). Kolunbarioak ere jarri dituzte, errausten dituzten hautsen-ontziak jasotzeko. "orain urteetarako tokia izanen da hilerrian". Udaleko langileek egin dituzte lan horiek.

## Lizarragako San Klementeak giro ederran joan ziren

Asteburuko ospakizunei 20 bat jubilatuk eman zioten errematea atzo, bazkaltzera elkartu ziren.

### Rebeka Mendoza LIZARRAGA

Pasa den asteburuan Lizarragan San Klementeak ospatu ziren eta igandean, urtero bezala, herriko nagusiak omendu zituzten kontzeju etxean. Aurten, herriarendako eredu diren bi pertsona omenduak izan ziren, Bautista Bakaikoa eta Mari Tere Navarro. Haiendako herriko neskatoek agurra dantzatu zuten. Ondoren, omenduak Xabier Senar kontzeju-buruaren eskutik eta txaloen artean oroigarria jaso zuten. Azkenik, musikaren doinuari jarraituz dantza egin zuten.



Mari Tere Navarro eta Bautista Bakaikoa omendu zituzten. REBEKA MENDOZA

Omenaldiaz aparte, asteburuko giroa paregabea izan zela adierazi zuten Lizarragakoek. Festak atzo buktatu ziren. Jubilatuen bazkarira hogeiren bat pertsona zeuden apuntatuta.



Altsasuko haurrak udako Aisiaz blai programan. ARTXIBOA

## Eguberrietako haur eta gazteendako eskaintza prest

Aisiaz blai eta Gu Geu Gazte programetan izena emateko epea asteazkenean itxiko da

### ALTSASU

Abenduan ikastetxeetan oporrak hartuko dituzte. Etxe askotan gurasoen lana oporretan dauden zaintzarekin bateragarria egitea zaila egiten da. Horren jakitun izanik, Txantxari udal ludotekak lana eta familia bizitza bateragarri egiteko eskaintza egin du: Aisiaz blai. 3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa da (2005 eta 2014 artean jaiotakoak). Eskaintza abenduaren 26, 27, 28 eta 29 eta ilbeltzaren 2, 3, 4 eta 5 egunetarako da. Orduetegiari dagokionez, bi aukera daude: 08:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Lehen orduetgia beteko ez balitz bigarrena sortuko litzateke.

Euren seme-alabak Aisiaz blai programan izena eman nahi dutenek gaurtik heldu den asteazkenean arteko epea dute izena emateko. Horretarako, 948 012 012 edo 012 doako telefonora

hots egin behar dute. Lehentasuna Altsasun erroldatutako eta behar bereziak dituzten haurrek dituzte. Ordaindu beharrekoa familia bakoitzaren diru sarrearen araberakoa da. Hori zehazteko udalak lau errenta tarte zehaztu ditu. Baita dagozkion hobariak ere. Horretarako, onartuak direnek 2016ko errenta aitorpena aurkeztu beharko dute abenduaren 5etik 15era, udal bulegoan edo ludotekan (Garbitoki eraikineko 1. solairuan).

Bestalde, Gazteria Zerbitzuak jakinarazi du Neguko Gu Geu Gazte programan izena emateko epea ere zabaldu dela. Aniztasun funtzionalak dituzten gazteengana zuzendutako programan izena emateko epea azaroaren 28ra arte dago zabalik. Intxostiapunta gazte gunetik pasaz 948 012 012 edo 012 dohainik den telefonora hots eginez egin daiteke izen ematea.

## Hiriberrira argazki saria

Arakilgo malkar baten gainean ahuntza argiaren kontra, iluntzean. *Arakilgo zentinelak* izenburua duen argazki horrek eman dio saria Eduardo Uharte Uharteri Conocer Navarra argazki lehiaketan. Hiriberriko argazkilariak argazkilaritza materiala erosteko mila euroko txartela eta xarma duen hotel batean asteburuko egonaldia irabazi ditu.



CONOCER NAVARRA

# Apirilaren 16tik 27ra, Altsasuko auziaren data

Zigor Kodeko terrorismo delituei buruzko 573 artikuluan oinarrituta auzipetu dituzte altsasuarrak. Haietako hiru espetxean daude eta epaiketa aurretik askatzen ez badituzte behin behineko 17 hilabeteko espetxealdia egina iritsiko dira

## ALTSASU

Espainiako Auzitegi Nazionalen eginen den epaiketak badu data: apirilaren 16tik 27ra bitartean izanen da. Bi guardia civil eta haien bikotekideak erasotzea leporatuta 10 gazte altsasuar daude auzipetuta. Haietako bi adin txikikoak dira eta auziak beste bide bat du, gainontzeko zortziak izanen dira epaituak.

Fiskaltzak haiendako, guztira 375 urteko espetxe zigorra eskatzen du. Gazte bakoitzari lau "terrorismo delitu" egozten die eta bakoitzagatik 12 urteko eta sei hilabeteko espetxe zigorra eskatzen du. Hau da, 50 urte. Eskaera horri aurre eginen dio-



Igandean, beste behin, altsasuarrak askatzea eskatuko da.

te Jokinek, Jon Anderrek, Julenek, Adurrek, Aratzek eta Iñakik. Oihanen kasuan fiskalak "mehatxu terrorista" egin izana egozten dio eta 12 urte eta erdiko beste zigor bat eskatu du harendako, guztira, 62 urte eta erdiko espetxe zigorra eskaera. Azkenik, Ainarari delitu bakarra egotzi diote, "mehatxu terrorista" egitea eta 12 urte eta erdiko kartzela-zigorrari aurre egin beharko dio. Bestetik, fiskalak 20 urteko inhabilitazio osoa eta, zigorra bete ondoren, beste bost urtez zaintzapeko askatasunean egotea eskatu du. Baita 41.100 euroko isuna zauriak eragiteagatik akusatutako zazpiendako ere.

Zigor alternatiboak ere proposatu ditu fiskalak. Oihanendako 30 urteko espetxe-zigorra eskatu du desordena publiko terroristak (8 urte), autoritatea kontrako atentatua (2 urte), lau lesio delitu (8 urte) eta mehatxu terroristak (12 urte eta sei hilabete) egotzita. Gainerako sei gizonezkoendako 18 urte eta sei hilabeteko kartzela aldia eskatu du. Pasa den astean gazteen abokatuek "berme guztiak" di-

tuen epaiketarako aukera ez dutela ikusten salatu zuten, "defentsarako ia proba guztiak ukatuta, defentsarako eta prozesu zuzena izateko eskubidea urratu da".

## Manifestazioa igandean

2016ko Altsasuko ferietako liskarregatik, Oihanek, Jokinek eta Adurrek urte bat bete dute espetxean. Atxilotutakoei eta gertukoei elkartzesuna azaltzeko eta auzipetutakoei babesa emateko igandean manifestazioa deitu du Altsasukoak aske plataformak. Urte bat espetxean, Oihan, Jokin eta Adur askatu!!! Altsasukoak aske!!! lelopean egingo da manifestazioa igandean. 13:00etan, lortia kultur guneko zabalgunetik abiatuko da.

# ANE eta OHE HEGALARIA

Antzerki  
musikala

## EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2017

### ALTSASU:

Iortia Kultur Gunea - 17:30  
Abenduak 6 (asteazkena)

### GURE HERRIETAKO HAUR KANTUAK ETA KONTUAK FAMILIAN GOZATZEKO

gurea, denona

de todos y todas

Nafarroako  
Gobernua

Gobierno  
de Navarra

euskara bidea



Alkate izandako bakaikuarrek botoa emateko zain. ARTXIBOA

## Galdeketaren urtemuga gogoan, asteburuko egitaraua

Duela urte bat 194 bakaikuarrek, % 65,3k, erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa parte hartu zuten

### BAKAIKU

Bakaikuko Gure Esku Dago-Gure Haitzak taldeak antolatuta, 2016ko azaroaren 27an erabakitzeko eskubideari buruzko herri galdeketa ospatu zen Bakaikun. Euskal Herri independente batego herritarra izan nahi duzue? galderari erantzun behar zioten herritarrek. 297ko errolatik 194 bakaikuarrek parte hartu zuten, %65,31. Horietatik 156 bakaikuarrek baiezkoaren alde egin zuten (%80,4) eta 26k ezetz bozkatu zuten (%13,4). 10 boza txuri izan ziren (%5,5) eta 2 boto baliogabe (%1,03).

Parte-hartzearekin pozik eta hunkituta azaldu ziren antolatzailak eta gertaera horiek gogora ekarri nahi dituzte, urte bat beranduago. Horrela, asteburu honetarako Erabakiaren Urtemugako Ekitaldiak antolatu dituzte, denetarik ekitaldiak, argazki erakusketa, bazkaria eta beste. Tartean, mahai-ingurua izanen da ostiralean. Erabakitzeko eskubidea. Zer dugu egiteko? gaia mahai gainean jarrita, dauden erronkez ariko dira Gaizka Aranguren, Silvia Formentí, Begotxu Olaizola eta Manu Gomez. Bestalde, Bakaikuko udalak adierazpen instituzionala eginen du astelehenean

## Egitaraua

### Ostielia 24

- **19:00** Erabakitzeko eskubidea. Zer dugu egiteko? Mahai-ingurua elkartean. Gaizka Aranguren (komunikatzaile iruindarra), Silvia Formentí eta Begotxu Olaizola (Assemblea Nacional Catalana-EH) eta Manu Gomez (Etxarriko galdeketaren bulkatzailea).

### Lanbata 25

- **10:30-13:00** Haurren serigrafia tailerra.
  - **13:00** Hautestontzi etxetxoaren mustutzea parkean. Gero trikipotea.
  - **14:30** Bazkaria.
  - **16:00-19:00** Haurren serigrafia tailerra.
- \*Egun guztian zehar argazki erakusketa.

### Astelehena 27

- **20:00** Udalak bilkuran erakunde-adierazpena onartuko du.

## Gaurko eta biharko gazte egitaraua prestatu du AGAk

Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) gaur eta bihar hartzen dituen egitaraua prestatu du Gazte Eguna ospatzeko aitzakiarrekin. Herriko eta ibarreko gazteen topagunea izanen da. Arbizuko aurreneko gazte egunak udaberrian hasi ziren ospatzen, baina aurtengoa udazkeneko 9. edizioa da. Azaroaren 25a izanda, ekitaldi feminista iragarri dute.

## Gazte eguneko egitaraua

### Ostielia 24

- **18:00** Haurren filma eta txokolate-jana.
- **20:00** Denok enkartelada.
- **20:30** Pintxo-pote bereziya.
- **22:00** Saio akustikua.

### Launbata 25

- **11:00** Brindisa eta argazkiya.
- **11:30** Altsasu eta Oreretako hitzaldiek eta gosaya.
- **13:00** Triki-poteua.
- **14:30** Bazkaya.
- **16:30** Gazte jokubek.
- **18:00** Argi gurdiya.
- **19:00** Frontonien ekitaldi feminista eta kalejira.
- **20:00** Kontzentra.
- **20:30** Bokata-jana.
- **23:00** Kontzertubek: Azken Sustraiak, El Sonido de la Metralla eta Ezinke

## Adurren bakartze zigorra ez zen zuzena izan

Soto del Realgo espetxe martxara garilaren 3an joan zirenak agurtzeagatik Adur bakartuta egotera zigortu zuten. Helegitearekin zigorra eten zuten eta epaileak arrazoa eman dio. Beraz, ez du falta zaiona bete behar. Bestalde, ferietako auziagatik aske gelditu ziren lau gazteak hilabetean bitan epaitegitik pasa beharrean bakarrean doaz.



Kalera, kalera mugimenduak udan egindako martxa.

## EPPKk kalera begirako ekimena martxan jarri du

Kolektiboko presoei "sistematikoki aplikatzen zaien lehen gradutik ateratzea da lehen erronka

### SAKANA

Batzea, euskal herriratzea, kaleratzea ardatzak ditu Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) udan despeditu zuen eztabaidaren mamia. Kolektiboak eragile aktibo izan nahi du "bakegintzan eta Euskal Herrian azkartu nahi den prozesu independentistan. Horretarako, beraien esku dauden baliabide guztiak erabiliko dituzte lehenbailehen herrira itzultzeko, baliabide juridikoak barne".

Espetxeetan urratsak ematen hasiak dira. Zigorren erredentzioak lortu ahal izateko kartzee-

la barruko lan destinoak eskatzen lehenetako bat Curtis-Teixeiroko espetxeko presoen batzarra izan da. Han dago preso Luis Mariñelarena. EPPKkoek bada-kite bide berria ez dela "xamurra" izanen. "Abokatuen laguntzarekin batera, herriaren babesa ezinbestekoa" dute aurrea egiteko. Ildo berria elikatze-ko Etxarrin larunbatean izanen den hitzaldia: Amaia Izko abokatuak egoera eta baliabide juridikoez ariko da; eta Xabier Alegria EPPK-ko mintzakide ohiak presoei egin duten apustuaz. Kultur etxean da, 19:00etan.

## Parlamentua Altsasuko auzian "proporzionaltasun" eske

Hori "beharrezkotzat" jo du, gazteei "lege babes eraginkorra eta berme guztiak dituen prozesua izateko"

### ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak "Altsasun eta Nafarroa guztian bakearekin eta elkarbizitzarekin konpromisoa" berresten duen erakunde adierazpena onartu zuen astelehenean. Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek aurkeztu zuten adierazpena eta aurreneko puntuaren alde talde Nafarroako Parlamentuko guztiek bozkatu zuten. Hurrengo bi puntuak Nafarroako Gobernuari eusten dioten taldeen aldeko botoarekin onartu ziren.

Bigarren puntuan Nafarroako Parlamentuak "auzi horretan dagoen proporzionaltasun faltak" sortzen dion "kezka gorena" adierazi zuen. Gororatuz apirilean epaituko dituzten zortzi gazteendako 375 urteko espetxe zigor eskaerak Europako Bata-suneko eskubide eta askatasunen arduradunaren adierazpena ekarri duela. Hiru auzipetu behin-behinean espetxean egotea eta defentsak aurkeztutako proba gehienak ukatzeak gazteen defentsa gabezia ekar dezakeelako kezka azaldu zuen.





Abenduaren 9ko mobilizazioaren Sakanako aurkezpenean parte hartu zutenak.

## Behin behineko konponbidean, Parisera

Bakearen artisauek abenduaren 9rako Parisen antolatu duten mobilizazioan parte hartzera deitu du Sarek, hainbat alkatek eta presoek senideek. "Jendarte zibilaren aktibazio eta mobilizazioak ezinbestekoak dira pauso berriak egiteko"

### SAKANA

*Orain presoak! Denok Pariserat* leloa duen manifestazioa eginen da Frantziako hiriburuan abenduaren 9an. Sakanako Sarek hura aurkeztu zuen larunbatean eta hartan parte hartzera animatu zituen sakandarrak. Sare herritarraren izenean Mikel Mundiñanok hartu zuen hitza eta adierazi zuenez, "elkarbizitzan, etorkizun oparago batean eta benetako bakean sinisten dugunok argi dugu ezin direla helburu horiek lortu gatazkaren ondorioak itxi gabe jarraitzen duten bitartean. Urratsak egin behar dira benetako konponbidearen alde eta urrats horiek egiteko uste dugu gizarte akti-

bazioa eta herri mobilizazioak izan behar dutela protagonista".

Sarekideak adierazi zuenez, abenduaren 9koa ez da manifestazio bat gehiago. "Gizarte protagonista" izan zen ETaren armagabetzean. Hori lortzeko "jendarte zibilaren aktibazio eta mobilizazioak ezinbestekoak izan baziren bizi genuen desblokeo egoera gaingintzeko eta hortaz armagabetzea emateko, berdin-berdin, ezinbesteko giltza izan behar da pauso berriak eman eta gelditzen diren gainontzeko ondorio guztiei aurre egiteko: presoak, biktimak, errekonozimendua, elkarbizitza..." Gaineratu zuenez, "armagabetzea bake justu eta iraunkorrerako

etapa garrantzitsua bada, presoek etxeratzea eta gatazka honek eragin dituen gainontzeko ondorioen soluzioa ere lehentasunezkoak dira".

Oraingo mobilizazioak Frantziar Estatua "interpelatzea" duela helburu esan zuen Mundiñanok, "Frantziaren euskal presoek aplikatzen zaien salbuespeneko neurriak bertan behera uzteko". Frantziaren zerbait mugitzen ari dela adierazi zuen. "Behin betiko" konponbidearen baitan, "helburua euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurrien amaiera exijitzea da. Honakoa eskuratuz: presoak hurbiltzea eta elkartzera, gaixorik dauden presoak kaleratzea

eta baldintzapeko askatasuna ematea". Frantziaren gertatzen denak Espainian eragin deza-keela gaineratu zuen.

### Alkateak

Mobilizazioarekin Sakanako 11 alkatek bat egin zuten. Haien izenean Eneka Maiz Ulaiarrek, Etxarri Aranazko alkateak, Foro Sozialak "bake prozesua indartzeko egiten ari den lana" aitortuz hasi zen. "Lan transbertsala egiten dute, inklusiboa, tinkoa eta atzera bueltarik ez duena". Forokoen hitzak bere eginez, Maizek esan zuen "behin betiko bakea lortzeko blokeo anitzak dauzkagu gaur egun eta blokeo horiek hausteko dinamikak planteatzen ari dira". Foroaren lanak "kontsentsu zabalak lortzen" ari direla eta udalak horretan bidelagun izanen direla gaitzatu zuen. Jarririk helburuak lortzeko "elkarlana, eskuzabaltasuna, amorruek alde batera uztea, tinkotasuna eta atzera bueltarik ez izatea" beharrezkotzat jo zuen.

### Senideak

Presoen senideen izenean Xochitl Karasatorrek, Jon Gurutz Maiza eta Oihan Barandalla Frantziaren preso daudela gogorarazi zuen eta "ezartzen zaien salbuespeneko legediarekin bukatzeko aukerak badaudela" esan zuen. Bide batez, Karasatorrek jakinarazi zuen herriko zazpi presoek Parisko mobilizazioarekin bat egin eta egun horretan ez dute la bisitarik hartuko. Gainera, Lannnemezan espetxean Barandallaren eta beste euskal presoek ekimen baten berri eman zuen: Frantziako hautetsi, erakunde, alderdiei gutun bidalketa masibo bat egitea. Gutunaren kopiak ohiko tokietan daude.

## "Egoera prekariora" Aita Barandiaran egoitzan

Asteburuetarako langile gehiago eskatu eta udalari lan hitzarmena negoziatzeko exijitu diote

### ALTSASU

Altsasuko Udalaren Aita Barandiaran adinduen egoitzako langileek eta LAB sindikatuak salatu dutenez, "langileak egoera prekariora eta neurrigabeko lan karga" dute. Azaldu dutenez, "egoitzan dauden pertsonak gero eta mendekotasun handiagoa dute. Arreta egokia bermatzeko plantilla indartzea beharrezkoa da". Ziurtatu dutenez, "gaur egun dugun ingresatu kopurua eta haien profilak ezinezko egiten du dugun langile kopururekin kalitatezko arreta bat ematea". Nabarmendu dutenez, "egoera are larriagoa da asteburuan, langile kopurua murriztagoa denean eta arreta behar duten pertsonak berdinak direnean".

Altsasuko adinduen egoitzako langileek eta sindikatu abertzaleak bi aldarrikapen egin dituzte. Batetik, asteburuarako langile gehiago kontratatzea eta, bestetik, Altsasuko Udalari exijitu diote adinduen egoitzako lan hitzarmen berria negoziatzera eser dadila. Aita Barandiaraneko langileek azaldu dutenez, "Altsasuko Udaleko bigarren mailako langile sentitzen gara eta konponbideak nahi ditugu".



**Amaya**  
Okindegi-goizotegia

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Uharte-Arakil  
667 353 503

Etxarri-Aranatz  
948 461 660

Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

panaderia · okindegia

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017

BM-supermerkatua

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562,185

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026

## ADEk bi dendariren hautagaitza aurkeztu du sariketa batera

Aldasoro eta Asensio enpresa esperientzia onena duen langile autonomoaren sarirako aurkeztu dituzte

ALTSASU

Nafarroako Gobernuak lan autonomoari laguntzeko 2017-2020 plana aurkeztu zuen pasa den asteazkenean. Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluarena izanen da planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura. Kontseilu horretan foru administrazioa eta autonomoak ordezkatzeko erakundeak daude. Hainbat neurri zehaztu ditu planak. Horien artean abenduaren 15ean Nafarroako lan autonomoa nabarmentzeko eguna ospatzea dago. Horren ba-



Juanjo Aldasoro eta Mª Jose Galan.

rruan, 16 sari banatuko dira kategoría desberdinetan. Kontseiluak hautatuko ditu sarituak.

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) bi kideren jardunari aitortza egiteko proposamena aurkeztu du: Juan Jose Aldasoro eta Alonso Asensio Vaquerizo. Biak ere enpresa esperientzia onena duen langilearen sarirako aurkeztu dituzte.

Aldasoro izen bereko harategiaren egungo jabea da. Isidoro Melero eta Zelai kaleen bidegurutzean dago eta establezimendua altsasuarrei duela sei hamarda zerbitzua ematen ari da. Asensio, berriz, izen bereko arropa-denda du Gartzia Ximeñez kalean. Azken hori bederatzita hamarkada darama zabalik. Bi establezimenduen jabeek gertuko merkataritzaren alde aritu dira betidanik.



ARTXIBOA

## Erosketarako bi egun "beltz"

Sakanako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak 18 establezimenduk denboraldiko produktueta deskontu handiak egingen dituzte gaur eta bihar. Arropa eta osagarrien Etxarriko bi dendetan eta Altsasuko 16tan opatuko ditu deskontuak erosleak. Eguberri erosketak Sakanan bertan egiteko aukera aparta izan daiteke biharkoa.



ARTXIBOA

## Jostailu trukearen ikasgaia

Beste urte batez Atakondoa eskola publikoko ikasleek jostailu trukaketan parte hartzeko aukera izanen dute. Herenegundik gaur arte ikastetxeko sarreran jostailuak jasotzen aritu dira, 08:45etik 09:15era. Egoera onean dauden jostailu bat edo gehiago eraman duten haurrei txartel bana eman zaie. Berdin da eman duten joko kopurua, bakoitzak txartel bat jaso du. Txartel hori bihar izanen da erabilgarria. Izan ere, jasotako jostailu guztiak Barazki guneko

karpan jarriko dira. Haien guztien artean ongi begiratu eta bat aukeratzeko txartela eman eta jostailuarekin etxera bueltatuko dira haurrak. Hori bai, karpan joko kooperatiboetan, betiko jokoetan eta mundukoetan aritzeko aukera izanen dute. Guztia 11:00etatik 13:00etara. Soberan gelditzen diren jostailuak Sahararen aldeko erakunde bati emanen zaizkio. Ekimenak modu praktikoan trukearen eta berrerabilaren balioa azaltzeko balio du.



INSPIRED  
BY YOU

CITROËN nahigo du TOTAL KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) CO2 ISURIA (G/KM): CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0 - 5,6 / 104 - 126 (1) PVP Penintsula eta Balear irlatan aholkatutako prezioa C3 Aircross PureTech 82 Feel 14.725€ (zergak, garraioa eta eskaintza barne), PSA Financial Services Spain, EFC, finantzatzeko bezero partikularrentzako eta 48 hilabeteko iraunkortasunarekin. Finantzial onarpenari lotuta. 48 hilabeteko kontrato bateko iraupenerako eta 50.000km-erako. Irekiera gastuekin finantzatutako kapitala: 11.650,79€. Irekiera gastuak: 442,72€. TIN: 6,4%. Zor den zenbatekoa: 14.189,67€. Epeka prezioa: 17.706,6€. Kontratoaren amaieran ibilgailua itzuli edo azken kuota berfinantziatu aukeratu da. Prezioak Idealdrive zerbitzuaren kontratazioa barne du, eskura ordaindutako 1.025€-ren truke(erabilera aruntetan markak prekonizatutako errebisioak, piezak desgaztea salbu eta lan-orduak barne), 48 hilabetetan edo 50.000km (gertatzen den lehenbizikoa). Estaldurak/ eskusioak kontsultatu [www.citroen.es](http://www.citroen.es)-en edo kontzesionarioan. Finantzatzeko ez duen bezeroarentzako prezioa: 16.225€. eskaintza 2017/11/30 arte. Ikusgai dagoena: C3 Aircross Shine berria 17.600€tik hasita. Bertsioen arabeko ekipamendu erabilgarriak. Automóviles Citroën España, S.A. c/Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIFA-82844473

**SUWOW**  
SUV TRINKO BERRIA  
CITROËN C3 AIRCROSS

Leku gehiago, modularitate gehiago  
#Aukeragehago

520 l. maletategia  
Modularitate marka  
Citroën Advanced Comfort  
Atzeko eserleku irristakorrak  
Gidatzeko 12 laguntza  
Pertsonalizazioarako 85 aukera  
Jetsierako kontrolerako Grip kontrola



**130€/HILABETEKO**  
47 kouta. Sarrera 3.516,93€  
TAE: 7,96%. Azken kuota 8.079,67€  
Eskaintza 2017/11/30 arte

**[4] URTE**  
MANTENIMEDUA BARNE

[f](#) [t](#) [v](#) [p](#) [i](#) [c](#) [i](#) [t](#) [r](#) [o](#) [e](#) [n](#) [.e](#) [s](#)



Memoria taldek Olaztin jarri duen erakusketa. REBEKA

## 36ko herriko gertaerei erantzuna emateko erakusketa

Balbino Garcia de Albizuk liburua aurkeztearekin batera Olazti memoria taldearen erakusketa aurkeztu zen

**Rebeka Mendoza** OLATZAGUTIA

Olatzagutiko memoria taldearen partaide den Txaro Otxandorenak esan digunez, erakusketa 50 dokumentuz osatuta dago. Bertan orain arte lortutako dokumentuak ikusgai daude. Haien artean herriko errolda, udal-tertxeko aktak eta industrialdeko historiak topa ditzake bisitariak, eta horiei esker herrian zein familiak bizi ziren, udaletxean zein alderdi politiko zeuden eta, Cementoseko langileei esker, mugimendu sindikalista handia zegoela jakin dezakegu.

Dokumentuen bilketa testigantzei esker lortu da. Memoria taldekoek testigantzak jaso eta egiaztatu egiten zituzten udal-tertxean bertan edo Nafarroako artxiboetan dauden dokumentuekin. Balbino Garcia de Albizuren laguntza ere oso garrantzitsua izan da bilketan. Izan ere, Garcia de Albizuk argita-

ratu duen liburuan Urbasako gertakariari erantzuna ematen saiatzen da, bertan Olatzagutiko eta Sakanako beste herriko kasuak islatzen dira.

Bukatzeko, taldekoek herrian ikusmin handia dagoela azpimarratu zuten. Baina erakusketak soilik orain arte jasotako informazioa argitaratzen duela eta horrek ez duela esan nahi lana amaituta dagoenik ere adierazi zuten. Taldeak egia argitzearen lanean jarraituko du.

Bestalde, Kale Nagusiko 36. zenbakiko etxean dagoen Pablo Picassoren Guernicaren erreproduktzioa zaharberri dute asteburuan. Pintura ikastaroko parte-hartzaileek eta herritar batzuek egin dute lana, Memoria Taldearen ekimenez. Murala 1987an margotu zuten Gernika batzordekoek, Bizkaiko herriaren bonbardaketaren 50. urteurrena bete zen urtean.

## Mantentze lanen ordezkapenatarako hautaketa

Altsasuko Udalak bando bidez jakinarazi du langileen behin-behineko hautaketa prozesua martxan jarri duela. Atabo Altsasu SL udal enpresa publikoak kudeatutako kirol instalazioen mantentze lanen postuko ordezkapenerako da deialdia. Hautaketa Enplegu Institutu Nazionalan (EIN) enplegua eskatzeko edota lanpostu hobea lortze-

ko izena emanda dauden artean egingen da, baldin eta deialdiaren baldintzak betetzen badituzte. Beraz, hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek EIN-eko zerrendan ez egonez gero, ostirala baino lehen eman beharko dute izena enplegu bulegoan hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko. Era berean, eskaintzaren xehetasunak, eskatutako baldintzak eta garatzeko proben informazio gehiago nahi duenak, aipatutako bulegoan galdetzeko aukera du.

# Lur emate duina 1936an eraildako Agirrereri

Otsaportillon fusilatutako olaztiarra familiaren panteoian, emaztearen ondoan, lur eman zioten larunbatean, Nafarroako Gobernuko bi ordezkari presente egon ziren ekitaldi ofizial batean izan zen

OLATZAGUTIA

Meliton Agirre Lezea porlandegiko langilea eta UGTko kidea zen 1936an. Urte hartako agorrilaren 23an lanetik ateratzean atxilotu eta fusilatuzera eraman zuten. Martina eta Lorenzoren semea 41 urte zituen hil zutenean (1895-03-10 /1936-08-24). Teresa Gastaminza Goikoetxea emaztea bost seme-alaben ardurarekin gelditu zen. Alargunari senararen heriotza espediente 10 urte geroago eman zioten.

Agirrereri azken agur duina ematera hainbat senide eta herritar joan ziren hilerrira. Haren iloba Pili Agirrek gogorarazi zuenez, “urte latz haietan beldurra jende askoz jabetu zen eta, hala ere, bere emazte Teresa ahalegin handiz eta duintasunez bost haurrekin aurrera atera zen”. Ilobak memoriaren kontra eta isiltasunaren aurka lan egin duten Nafarroako Gobernuari, Aranzadi zientzia elkarteari, udalari eta memoria taldeari eskerrak eman zizkien.

Bake, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibar Etxeberriak foru administrazioak memoria eta Giza Eskubideekin duen konpromisoa berretsi zuen. Eraildakoa “behartutako desagertu bat” zela nabarmendu zuen. Baraibarrek memoria aldarrikatu zuen: “oroitzeko eta erreparatzeko; memoria elkar bizitzeko; memoria elkar errespetatzeko; memoria ez ahazteko eta memoria gertaera larri haiek sekula errepika ez daitezten”.

Baraibarrek eta Historia Memoria ataleko buru Josemi Gastonek eman zioten kutxa familiar. Hildakoaren izen bera duen ilobak jaso zuen. Asier Sevilla birbiloba sartu zuen panteoian. Krabelin gorriak eskaini zizkion eta agurtzeko beste birbiloba batek, Amaia Razkin biolin-joleak, gitarra-jole baten laguntzaz Txoriak txori jo zuen.



Hilerriko agur ekitaldian makina bat jende elkartu zen. NEREA MAZKIARAN

# OSTIRAL BELTZA

## DENBORALDIKO PRODUKTUETAN PREZIORIK ONENAK

**ETXARRIN:** ARGIRO OPTIKA - LASA KIROLAK

**ALTSASUN:** ASENSIO-MODA - BOUTIQUE EGIN - CALZADOS BENGOTEXEA - CORTINAS IZARA

DEPORTES INTXOSTIA - DEPORTES LEZEA - IKER KIROLAK - JOSELEN MODA - LARKA

LASA KIROLAK - MARI CARMEN - ML MODA HOMBRE - ML MODA MUJER - SARE CALZADO

TU TIENDA ESPECIAL - TXIKITXO








**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA



**Sakanatik  
begietara begira**

# Otsaportillok hiru izen berri eman ditu

DNA proben bidez Urbasako lezean eraildako beste hiru gizon identifikatzeko aukera izan da.

ETXARRI / ALTSASU / OLATZAGUTIA

Bake, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, Otsaportilloko lezean opatutakoekin hiru identifikazio lortu dituzte. Joan den urtean hobitiko metalezko kutxan zeuden hezurak atera ziren. Orain lortu da jakitea haietako batzuk Jose Ubeda Sanchezenak zirela. Aranzadi zientzia elkarteko kideak lastaila erdialdean jaitsi ziren bigarren eta kaskailu meta baten azpian bi hezurdura opatu zituzten. Probek Victor Urkijo Tobalina eta Migel Bergara Bureau direla jakinarazi dute. Joan den urtean han hildako beste



Aranzadi zientzia elkarteko kideak Otsaportilloko lezean.

lau gizonetako identifikatu zituzten: Meliton Agirre Lezea, Francisco San Roman Galbete eta Domingo eta Francisco San Roman Otxoa anaiak.

Nafarroako Gobernuak martxan jarritako DNA bankuari esker egin dira azken aurkikuntzak. Euren senideak identifikatu nahi dituzten 119 familien laginak daude aipatu bankuan. Horrekin batera, foru administrazioak hobitiko ateratzeko programa martxan du. Bi ekimen horien bidez Nafarroako Gobernu behartutako desagertzeen kasuan Nazio Batuen Erakundeak eskatutakoa betetzen ari da.

## Identifikatutakoak

**Jose Ubeda Sanchez** Gabrielen eta Joseren semea 1884ko abenduaren 2an jaio zen Madril. Catalina Alzaga Ortegarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen (Jose, Antonio, Jose Luis eta M<sup>a</sup> Rosario). Ubeda UGT sindikatuko kidea zen. Renfeko langilea, maletak eramaten zituen. 1930 eta 1936 urteen epaitetik idazkaria izan zen. Beharra zuten familiendako eta gizarte ekintzarako antzezlanak

egiten zituen talde bat zegoen eta Jose eszena-tokiko dekorazioak aldatzen zituena zen. Estatu kolpearen kontrako izateagatik Otsaportillon hil zuten, 52 urte zituela, 1936ko agorriaren 16an.

**Victor Urkijo Tobalina** 1898ko lastailaren 22an jaio zen Teodosiaren eta Pedoren semea, Altsasun. Beatriz Perez Marañacekin ezkondu eta zortzi seme izan zituzten (Fernando, Jose Adolfo, Ricardo, Raul, Armando, Alberto, Oscar eta Victor Manuel, aita hil ondoren jaio eta hilabetera hil zen). Porlandegiko langilea, lantegiko epaitegi mistoko kidea zen. Sindikatu metalurgikoko kidea zen. 1934ko iraultzara arte sozialista nabarmena izan zen. Gauerdian lantegitik atera eta 37 urte zituela hil zuten, 1936ko agorriaren 27an.

**Migel Bergara Bureau** Etxarrin jaio zen 1906an. Dolores Imazekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituen. Olatzagutian bizi ziren. Bera langilea zen eta UGT sindikatura afiliatuta zegoen. 30 urte zituela hil zuten, 1936ko agorriaren 28an.

## Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen (TEEH) I. Bilketa Lehiaketa

AZAROAREN 24TIK ABENDUAREN 1ERA, HURBILEN DUZUN DENDAN

**Parte hartu kanpainari atxikitako eta TEEHren kudeaketari lotutako Nafarroako merkataritza-establizimenduetan eta LAGUNDU EZAZU HARRAPATZEN.** etxetresna elektriko txiki eta handiak, kontsumo apalekoak, informatika- eta telekomunikazio-ekipoak, argiztapenekoak, argiztapen-tresnak, tresna elektrikoak...

Oinarriak hemen ikusgai: <https://gan-nik.es/concurso-de-recogida-de-raee-2017/>

**DENDAN TRUKATZEKO TXARTELAK IRABAZI AHALKO DITUZU, ETA INGURUMENA ZAINTZEN LAGUNDUKO DUZU**

Ekimena:

Laguntzaileak:

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 24

**ARBIZU** Karpetak apaintzeko haurrendako tailerra emanen dute Aitziber eta Miren Berastegik. Aurretik izena eman. 17:00etan, liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**BAKAIKU** Erabakitzeko eskubidea. Zer dugu egiteko? Mahai-inguruan Gaizka Aranguren, Silvia Formetik, Begotxu Olaizolak eta Manu Gomezek. 19:00etan, elkartean.

**ALTSASU** Marikixki beldurrez dago ipuin kontaketa eginen du Birgiñe Alvirak. 19:00etan, lortia kultur gunean.

**SAKANA** Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

**LAKUNTZA** Trasteando taldearen kontzertua. 20:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ETXARRI ARANATZ** Volar filmaren emanaldia; indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren lekukotzak jaso ditu. 21:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU** La montaña entre nosotros filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gaupasa antolatu du Altsasuko Gazteria Zerbitzuak. 22:00etatik 09:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

**OLATZAGUTIA** Idiot Txou antzezlana, Ados teatroak. 22:30etan, kultur etxean.

**OLATZAGUTIA** Maider Zabalegiren kontzertu akustikoa. 23:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 25

**SAKANA** Ibon Iparragirre eta larri gaixorik dauden presoan askatasuna aldarrikatzeko kotxe-karabana antolatu du Sarek. Adar batek Irurtzunera joko du, besteak Ziordira. 10:30etan, Etxarri Aranatzko plazatik.

**BAKAIKU** Herri galdeketa urteurrenaren ospakizuna. 10:30etik aurrera, herrian.

**IRURTZUN** Jostailuen truke azoka eta joko kooperatiboak. 11:00etatik 13:00etara, Barazki gunean.

**ARBIZU** Gazte eguna. 11:00etatik aurrera, Arbizun.

**IRURTZUN** Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa. 12:30etan, Tahona ondoan.

**UHARTE ARAKIL** El origen del Santuario de San Miguel excelsis: una aproximación arqueológica. Aralarko santutegi ondoko aurtengo arkeologia indusketen emaitzen berri emanen dute Fran Vallek eta Dane Wilson. 17:00etan, Zamartzen.

**IRURTZUN** Udazkeneko dantza



**jaialdia** eskainiko dute Amaier eta Orritz dantza taldeek. 18:00etan, frontoian.

**ALTSASU** Youtubers ikastaroa. 18:00etan, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Orain, presoak kalera hitzaldia emanen dute Amaia Izko abokatuak eta Xabier Alegria EPPKko mintzakide ohiak. 19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Sinisten dizut. Zure egia gurea egiten lelopean kontzentrazioa deitu du mugimendu feministak, emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean. 19:30etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** Yllana 25 ikuskizuna eskainiko du Yllana konpainiak. 19:30etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU** Azken Sustraiak, Ezinke eta El Sonido de la Metralla taldeen kontzertuak. 23:00etan, Argi Bidea elkartean.

## IGANDEA 26

**IRURTZUN** Iratira joanen dira Iratxo mendi taldeko kideak. Goizean goiz irteera elkartetik.

**ALTSASU** Ergoienara 48 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 09:00etan, klubeko bajeratik.

**ETXARRI ARANATZ** Errusiako iraultzari omenaldia eta Justo De la Cueva Dokumentu eta

**OLATZAGUTIA 1936. Zer gertatu zen Olaztin?** Erakusketan 1936an eta ondorengo urteetan olaztiarrek jasandako errepresioari buruzko hainbat dokumentu ikusgai izanen dira. Azaroaren 30era arte, astelehenerdik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara, eta domeketan, 12:30etik 14:00etara, kultur etxeko 1.pisuko 2. gelan.

**Artxibo** Gunearen aurkezpena. 12:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Urte bat espetxean Oihan, Jokin ta Adur askatu!! Altsasukoak aske!! manifestazioa. 13:00etan, lortia zabalgunetik.

**ALTSASU** Tadeo Jones: el secreto del rey Midas filma. 17:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA** 3, 2, 1... play antzezlana, Trokolo taldea. 17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Totes som antifeixistes dokumentalaren aurkezpena, Herrialde Katalanetako auzipetutako antifaxistei buruz. 18:00etan, gaztetxean.

**ALTSASU** El otro lado de la esperanza filmaren emanaldia. 17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** La montaña entre nosotros filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal

**ALTSASU** Emakume modaren 100 urte.

Emakume janzkeraren garapena erakusten duen erakusketa prestatu du Iruñeko erreinuko etnografia museoak. Abenduaren 3ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

**Herrira** kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

## ASTEARTEA 28

**ALTSASU** Hezkuntza eraldatzen. Nola antolatzen gara? Espazioak, denbora... haurren erritmoa hitzaldia, Olatz Alvarez. 17:00etan, Txioka haur ikastolan.

## ASTEAZKENA 29

**ALTSASU** Arantxa Urretabizkaik *El camino que hemos hecho las mujeres en los últimos 25 años* hitzaldia emanen du. 19:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 30

**ETXARRI ARANATZ** Alzheimerra edota beste demenziak dituztenen senide-zaintzaileen estresaren kudeaketa hitzaldia emanen du Afan elkartek. 16:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU.** Una mujer fantástica. 19:00etan, lortia kultur gunean.

## ZORION AGURRAK



**Magali**  
Majo ospatu duzu aurtengo zure urtebetetzea. Asteburu osoa tartak jan eta jan. Muxu handi bat.



**Joxe Miguel Gaztelu**  
Zorionak!! Primeran pasa zure urtebetetzean denekin eta besarkada handi bat etxekoan partez.



**Zorionak amona Encarna!**  
Zure biloben aldetik jaso ezazu besarkadarik beroena!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**  
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

## Enrique Jimenez Peral

Goian bego

51 urte zituela hil zen 2017ko azaroaren 19an, Altsasun.

Baina, zer uste duzue,  
zein mundutan bizi zarete?

Lagunak eta Urtziko kuadrilla

ESKELA



## Enrique Jimenez Peral

Sekula ez zaitugu ahaztuko

Zelandiko lagunak

ESKELA

## Enrique Jimenez Peral

Altsasu BHIko hezkuntza komunitateak bat  
egiten du familiaren saminarekin



IES ALTSASU BHI

IES Altsasu BHI

## IRAGARKI SAILKATUAK

### OPARITUTAKOAKA

**Txakur bat oparitzen da, ertaina eta lasaia.** Informazio gehiagorako deitu 629 885 429 telefonora.

### OHARRAK

**Odol-emaileak.** Uharte Arakil: Abenduak 17, 17:00-20:30

**Haurren loa. Kafe tertulia Juanjo Kintela-ren eskutik.** Haur psikologoa, psikomotrozista eta aholkulari pedagogikoa. Azaroak 29, 17:00etan, hitzaldi irekia. Kattuka haur eskola, 948 467 009, info@kattuka.com. Arbizu

**Etzari Aranazko irakurle taldea.** Hurrengo hitzordua: abenduaren 14an izanen da, ostegunean, 19:00etan liburategian. Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketak liburuz ariko dira hizketan.

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Euskonews ekonomiko-laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: www.

euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Volkswageneko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauria gaztelua euskaldunen zat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korronte zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

www.iragarkilaburak.com

ESKELA



## Enrique Jimenez Peral

Pasatu ditugun une guztiengatik

Urtzi-ko zerbitzari guztien partez

ESKELA

## Enrique Jimenez Peral

Mila esker egindako guztiarengatik, lagun!



Altsasuko Peñak

## JAIOTZAK

- Sarah Kao Mguem, azaroaren 10ean Irurtzun
- Nahia Arrieta Molina, azaroaren 12an Iturmendin
- Lizar Arregi Mendizabal, azaroaren 13an Ziordian
- Alaitz Olmedillo Mindegia, azaroaren 15ean Urdiainen

## EZKONTZAK


- Andoni Goñi Etxebekia eta Mainer Villegas Maestre, azaroaren 18an Irurtzun

## HERIOTZAK


- Juana Arregi Barrena, azaroaren 17an Lakuntzan
- Enrique Jimenez Peral, azaroaren 19an Altsasun
- Julia Morán Pascasio, azaroaren 20an Altsasun
- Juana Maria Zabalo Arza, azaroaren 20an Altsasun
- Margarita Artola Igoa, azaroaren 21ean Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

## Ostiral Beltzean non egingo dituzu erosketak?



## Ostirala, 10




## Larunbata, 11



## Igandea, 12



## Astelehena, 13



40 tanatorios  
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

# Ezkurdia eta Zabaleta eta Martija eta Altuna

**PILOTA** Gaur hasiko da Binakako Pilota Txapelketa. Ez dago faborito argirik, orekaren aldeko apustua egin baitute enpresek. Gaur Ezkurdiak eta Zabaletak Olaizola II.a eta Imaz dituzte aurkari eta bihar Altunak eta Martijak Urrutikoetxea eta Galarza

Zortzi bikote lehiatuko dira Binakako Pilota Txapelketan. Ez dago faborito argirik, enpresek bikote orekatuak diseinatzeko ahalegina egin dutelako. Txapelketa ireki baten aurrean gaudete eta pilotariak ere hori nabarmendu zuten. Aspek honako bikoak aurkeztu ditu: Altuna III.a-Martija; Irribarria-Merino II.a; Ezkurdia-Zabaleta; eta Elezkanok II.a-Rezusta. Asegareren bikoak honakoak dira: Olaizola II.a-Imaz; Bengoetxea VI.a-Larunbe; Urrutikoetxea-Ladis Galarza eta Victor-Albisu.

Txapelketa gaur hasi eta apirilaren 8ra arte luzatuko da. Lehen fasean bikote denek el-



Aurkezpena Bilboko pilotalekuan egin zuten, asteartean. ASPE

karren aurka jokatuko dute bi aldiz. 14 jardunaldi izango dira guztira. Astebeteko atsedendiararen ondoren, lehen lau sailkatuek itzuli bakarrek ligaxka jokatuko dute finalerdietan eta beste asteko atsedenaren ondoren finalerdietako lehen bi sailkatuek finala jokatuko dute, apirilaren 8an.

## Martija pozik

Etxeberriko Julen Martijak Binakakoan debutatuko du. Bidai-bikaina izango du, lau t'erdiko txapelkun berri Altuna III.a. Biko gazteena da, 20 eta 21 urte baitituzte. "Aukera bikaina da, eta Altuna sekulako kidea da. Oso ondo moldatzen gara. Nire maila erakusteko aukera baten moduan hartzen dut, gora egiten jarraitzeko moduan" esan zuen Etxeberrikoak aurkezpenean. Altunak beterano lanak egin beharko ditu estelarretan segurtasun nabarmena erakutsi duen sakandarrarekin. .

## Ezkurdia eta Zabaleta, hirugarrenez

Ezkurdia eta Zabaleta elkarrekin ariko dira berriz ere. 2014an finalerdietatik partida bakarerra gelditu ziren eta 2015ean finaletik partida bakarrera. Bikote klasikoa, indar handikoa, primeran elkar ulertzen dute eta maila polita emango dute.

Sakandarrek Olaizola II.a eta Imaz izango dituzte aurkari gaur; Altuna III.a eta Martija Urruti eta Galarzaren kontra ariko dira. Ikuskizuna has dadila!

## Iñigo Aritza Txapelketako azken jarduna

Igandean XX. Iñigo Aritza ikastolako 6. eta azken jardunaldia jokatuko da ikastolako frontoian, 16:30ean. Final handiak abenduaren 10ean jokatuko dira.

### Igandeko partidak:

#### • LH3:

Harri – loar  
loar – Kimetz

#### • LH4:

Beñat – Eneko  
Eñaut – Aser  
Aiora – Eneko  
Eñaut – Eneko

#### • LH6:

Oihan – Oier

#### • DBH1:

Oier – Hegoi

#### • DBH3:

Joanes – Aitor

Oier – Inar

Aitor – Inar

Oier – Ekhi

## Binakako 1. jardunaldia

### Partidak:

#### • Olaizola II.a-Imaz /

**Ezkurdia-Zabaleta** (gaur, 21:00etan, Beran. ETB1)

#### • Urrutikoetxea-Galarza /

**Altuna III.a-Martija** (larunbatean, 17:00etan, Iruñean. ETB1)

#### • Bengoetxea VI.a-Larunbe /

**Victor-Albisu** (igandean, 17:00etan, Logroñon. ETB1)

#### • Elezkanok II.a-Rezusta /

**Irribarria-Merino II.a** (astelehenean, 16:30ean, Tolosan. ETB1)

**Clinica Dental**

**Berreteaga klinika**  
948 563 107  
Intxaurren 4, behea  
Altsasu

Martin Berreterreagak klinikan 28 urte eman ondoren, utzi gaitu eta zerbitzuarekin bere alaba **Paula Berreteagak** jarraituko du.

**PORTUKO OKINDEGIA**  
ogiazen artisauak

Altsasu  
948 563 822  
Lantegia  
948 467 153  
Etxarri Aranatz  
948 460 988





Kanikrossa taldekoak Etxarriko ibilbidean. ETXARRI ARANAZKO TXAKURKROSA

## Etxarri Aranazko Txakurkrosa antolatu dute abenduaren 17an

**TXAKURKROSA** Etxarriko kanpinean jokatu da. Izena ematea zabalik dago [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean

Etxarri Aranazko Xalok zentroak, Hondarribiko Euskanikross taldearen laguntzarekin, Etxarri Aranazko Txakurkrosa proba antolatu du abenduaren 17rako. Horrela, txakurrekin batera egiten den lehendabiziko lasterketa izango dugu Sakanan. Probak Etxarri Aranazko kanpina izango du abiapuntu eta helmuga eta beheko basoan jokatu da. Kanikros taldeko kide den Igor Artieda etxarriarrak aipatu digunez, ibilbideak Triku Trail mendi lasterketaren tarte bat hartuko du. "Triku Trailen lehen eta azken bizpahiru kilometroek osatuko dute proba".

Euskanikross taldekoek hilerotira bat egiten dute, eta urriko topaketan Etxarri Aranazko Txakurkrosa burutuko den paraieetan barna ibili ziren. "Izugarri gustatu zitzaizen ibilbidea" aitortu digu antolakuntzan buru-belarri dabilen Artiedak.

Hiru modalitateko lasterketa izango da Etxarri Aranazkoa: bikejoring, pertsona txirrindulari lotuta dagoela; patina, pertsona patin handi antzeko baten gainean doana eta txakurra patinari lotuta; eta kanikrossa edo txakurkrosa, pertsona korrikan ari dela eta txakurra nagusiari lotuta.

Lehen bi modalitateetan parte-hartzaileek 6,3 km-ko distantzia osatu beharko dute eta azken modalitatean, kanikros proba luzeak 6,3 km-ko distantzia izango du eta proba herrikoiak distantzia erdia izango du, 3 km. Ibilbide ederra izango da, paraie zoragarrietan barna. Horretaz gain, haurrendako probatxoak ere prestatuko dute.

### Izena ematea

Izena ematea zabalik dago, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

# Kawasaki Z Cup: Juanma Olias laugarrena

**MOTOZIKLISMOA** Asteburuan despeditu da txapelketa, Chesteko Ricardo Tormo zirkuituan. Podiumera igotzear egon zen irurtzundarra, baina lasterketan bosgarrena sailkatu zen eta sailkapen orokorrean laugarrena izan da

Juanma Olias pilotu irurtzundarrak lan bikaina egin du CEV edo Espainiako Abiadura Txapelketaren barruan antolatu den European Kawasaki Z Cup Txapelketan. Asteburuan despeditu zen Txapelketa, Valentziako Ricardo Tormo zirkuituan. Podiumera igotzeko aukerak bazituen irurtzundarrak, sailkapen orokorra estu zegoelako, baina, azkenean bosgarrena sailkatu zen irurtzundarra eta sailkapen orokorrean laugarren despeditu du Oliasek, podiuma zapatzear.

Erronka berri eta polita, European Kawasaki Z Cupean 15 pilotu lehiatu dira eta guztira 6 proba jokatu dituzte: apirilaren 29an eta 30ean Albaceten (lasterketa bikoitza), ekainaren 18an Bartzelonako Montmelón, urriaren 7an eta 8an, Alcañizen jokatuak lasterketa bikoitza eta asteburuan Chesteko Ricardo Tormo zirkuituan jokatuakoa.

Valentziara sailkapen orokorrean Raul Martinez iritsi zen lider (115 puntu), Joan Sardanyons eta Javier Valera bigarrena eta hirugarrena, biak 81 punturekin, eta Juanma Olias laugarrena, 65 punturekin. Txapelketako azken probak, bada, podiuma erabaki zuen. Izan ere, laugarrena geratzea edo podiuma zapatzea, hori guztia zuen



Juanma Olias European Kawasaki Z Cup Txapelketako proba batean. CEV

## 2018 DENBORALDIA DU ORAIN BURUAN IRURTZUNDARRAK, BABESLEAREN LAGUNTZA BAITU

jokoan Oliasek. Ricardo Tormo zirkuituari 19 itzuli egin behar zizkioten pilotuek. Entrenamenduetan laugarren denbora onena egin zuen irurtzundarrak eta postu horretatik aterata ekin zion lasterketari. Irteeran lau-

garren postuari eutsi zion eta lasterketan barna lehia oso borrokatua izan zuen beste bi pilotuekin batera. Azkenean, Raul Martinezek irabazi zuen lasterketa eta irurtzundarra bosgarrena sailkatu zen.

Raul Martinezek irabazi du European Kawasaki Z Cup Txapelketa (140 puntu), Javier Valeraren (101 puntu), Joan Sardanyonsen (81 puntu) eta Juanma Oliasen (78 puntu) aurretik. Podiuma zapatzeko 3 puntu eskasera geratu da irurtzundarra eta 2018an du burua.

## PILOTA Nafarroako Gazteen Lau t'erdian ordezkariarik gabe

Nafarroako Gazteen mailako Lau t'erdian, Guillermo Mazo Memorialean, final laurdenak jokatu dira. Finalerdien atarian geratu da Arbizuko Aldabide taldeko Olaetxea, Txarutako Ariztegi 11 eta 18 irabazi baitzion. Ariztegi, Apezetxeak, Telletxeak eta Aizkorbek jokatu dituzte txapelketako finalerdiak, asteartean.

## Osasuna Magna 4. postura igo da eta Levante du gaur arerio

**ARETO FUTBOLA** Talde berdeak 3 eta 2 irabazi zion Catgas Energiari eta 3 puntu garrantzitsu lortu zituen

Lehen mailako areto futboleko ligari jardunaldi jarraian galduta eta gero, garaipenaren xendara itzuli da Osasuna Magna, ostiralean Anaitasun jokatuak partidaren talde berdeak 3 eta 2 irabazi baitzion Catgas

Energia taldeari. Martel, Victor eta Roberto Martil izan ziren gogileak. Imanol Arregik irabazteko sufritu behar izan zutela onartu zuen. "Beste taldeek ere jokatu egiten dute. Beti diot, ezingo diogu inori irabazi su-

fritu gabe" azaldu zuen. Arregik gogoratu zuen asteartean Inter Movistarren kontra desgaste handiko partida jokatzetik zertorela Osasuna Magna, eta Catgasen kontra taldeak "sekulako esfortzua" egin zuela eta partida irabaztea merezi izan zutela gaineratu zuen.

Barcelona da lider berria (31 puntu) eta Osasuna Magna 4. postura igo da (21 puntu). Gaur, 20:00etan, 14 punturekin sailkapenean 10.a den Levanteren kontra ariko da talde berdea.



## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Castillo de Tiebas – Lagun Artea	1-1
Beriain – Etxarri Aranatz	3-0

SAILKAPENA	
1. Infanzones	23
12. Lagun Artea	10
16. Etxarri Aranatz	5

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
15:45 Etxarri Aranatz – Infanzones	Etxarri

IGANDEAN	
15:30 Beriain – Lagun Artea	Lakuntzan

Aldaketa nabarmenik ez preferente mailan. Haize gogorrari egin zioten aurre Tiebasek eta Lagun Arteak. Haizea alde, Tiebasek gola sartu zuen lehen tartean. Bigarren zatian lakuntzarrek baloiaren jabetza hartu zuten eta Unanuk bana berdintzea lortu zuen. Aukera gehiago izan zituen Lagunek, baina Tiebaseko atezainak gelditu zituen.

Etxarri Aranatz, bestalde, punturik gabe etorri zen Beriaindik. Irabaztera atera ziren bi taldeak. Alboko sake baten ondoren aurreratu zen Beriain eta handik gutxira penaltz bigarrean sartu zuten. Etxarri erasora pasa zen, baina kontraeraso bikain baten ondotik Beriaingoen hirugarren gola iritsi zen.



## SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINAK	
IGANDEAN 2. JARDUNA UHARTEN	
10:00 Altsasu A – Aralar Mendi	
10:50 Altsasu B – Etxarri Aranatz B	
11:40 Altsasu D – Etxarri Aranatz A	
12:30 Altsasu E – Lagun Artea B	
13:20 Sutegi – Lagun Artea A	

Sakanako Futbol Topaketan barruan, igandean txikiak lanera itzuliko dira, benjamin mailako Sakanako Futbol Topaketan 2. jardunaldia egonen baita jokoan etzi, Uharte Arakilen. 5 partida jokatu dira guztira.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Amaia – Altsasu	1-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak B	22
2. Altsasu	17

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
15:30 Altsasu – Berriozar	Dantzalekun

Goialdean dauden bi taldeen arteko partidari, Amaia akats bat aprobetxatuz Guisadok Altsasu aurreratu zuen. Tamalez, bukaera aldera berdintzea lortu zuen Amaiak.

## EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Lagunak	0-5

SAILKAPENA	
1. Berriozar	33
12. Altsasu	11

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
11:45 Castejon – Altsasu	Castejon

Lagunak, ligako oilarretako baten kontra aritu ziren Altsasuko neskek. Ezin izan zuten sorpresarik eman eta puntuek Barañainera egin zuten ihes.

# Etxeberria eta Gonzalez Bio Racer pistako liderrak

**PISTA TXIRRINDULARITZA** Ilbeltzaren 21era arte guztira 9 pista jardunaldi jokatu dituzte Donostiako belodromoan Bio Racer Oiartzun Bike Pista Trofeoan dabilzan txirrindulari sakandarrak. Momentuz, Etxeberria eta Gonzalez liderrak dira

Azaroaren 11n hasi zen Bio Racer Oiartzun Bike Pista Trofeoa. Gipuzkoako pistako txapelketa garrantzitsuena da hau. Txapelketako lehen jardunaldi horretan Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria puntuazioan onena izan zen eta emakumezkoetan Bakarne Gonzalez altsasuarra (DC Road) scratchean lehena sailkatu zen.

Txapelketako 2. jardunaldia larunbatean jokatu zen. Berriz ere Josu Etxeberria onena izan zen puntuazio proban; Burundako Quesos Albeniz taldeko Mateo Gonzalez 5.a sailkatu zen. Eliminazio probako A taldean 4.a sailkatu zen Josu Etxeberria, eta Mateo Gonzalez 12.a izan zen. Bestalde, emakumezkoen japoniar A txapelketan Bakarne Gonzalez 2.a sailkatu zen, eta Joana Irastorza etxarriarra (CAF Transporting) 14.a. Emakumezkoen puntuazio A taldean Bakarne 5.a izan zen eta Joana 13.a. Eta kadeteetan, scratcheko



Bakarne Gonzalez, ahalegin betean. MARTIN EARLY

B taldean Martxel Etxeberria (Irabia Intersport) 6.a sartu zen eta puntuazioko B taldean 4.a.

### Liderrak

Juniorren sailkapen orokorrean Josu Etxeberria da lehena (59

puntu) eta Mateo Gonzalez 9.a (27 puntu). Kadeteen sailkapen orokorrean Martxel Etxeberria 14.a da (22 puntu) eta emakumezkoen sailkapen orokorrean Bakarne Gonzalez altsasuarra da liderra (60 puntu).

## Mercerori aitortza

**KIROLDEGIA** Nafarroako Kirol eta Gazteriako Institutuak emango dituen Kirol Merituaren Ohorezko Aipamenean artean dago Jose Mari Mercerero Lizarraga. "Bere bizitasunagatik eta bere kirol ibilbide luzeagatik" egingo diote aitortza. "78 urterekin hainbat atletismo probatan parte hartzen segitzen du, emaitza garrantzitsuak lortuz" diote Gobernutik.



GUAIXE

non  
erabili

### FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan

### PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari

### JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari

### DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan



Nafarroako Txirrindularitza Gala, saritutako txirrindulari guztiak, sakandarrak tartean. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Nafarroako Txirrindularitza Federazioak antolatuta, larunbatean Nafarroako Txirrindularitza Gala ospatu zen Berriozarren. Besteak beste, Nafar Kirol Jolasetako Txirrindularitza sariak banatu ziren. Aipatzekoa da txirrindulari sakandarrak galako protagonistak izan zirela, beraiendako izan baitziren sari potoloenak.

#### Sarituak

Sari ematean Mikel Nieve eta Josu Zabala txirrindulariek hartu zuten parte. Nafar Kirol Jolasetako kimuen eta haurren mailan Atarrabian, Tafallan, Lekunberrin, Azpilagañan, Iturmendin eta Lizarran jokaturako lasterketek puntuatu zuten. Emakumezkoen kimuetan, bai ginkanan bai linean Aralar klubeko Bakarne Arregi bigarrena sailkatu da, bere taldekide Naia Perez hirugarrena eta Leire Urtaun laugarrena.

Gizonezkoen kimuen mailan, lehen urteko linea lasterketetan, Burundako Iker Gomez izan da lehena eta Aralarko Alain Rosado hirugarrena. Bigarren urteko kimuen linea lasterketetan, Burundako Mikel Regil bigarre-

# Sakandarrak protagonistak

**TXIRRINDULARITZA** Larunbatean Berriozarren ospatutako Nafarroako Txirrindularitza Gala, Nafar Kirol Jolasetako sari banaketan sari potoloenak Burunda eta Aralar klubetako txirrindulariendako izan ziren

na sailkatu da eta Aralarko Aritz Oiarbide laugarrena. Eta kimuen mailako ginkanan Burundako Mikel Regil izan da txapelduna bere taldekide Asier Etxeberriaren eta Iker Gomezen aurretik.

Gizonezkoen haurren mailan, linea lasterketen lehen urteko sailkapena Burundako Mikel Unzillak irabazi du, eta bigarren urteko sailkapenean Burundako Hugo Aznar nagusitu da Aralarko Martxel Etxeberriaren aurretik. Eta haurren mailako ginkana Burundako Jon Chamorrok irabazi du, Aralarko Jon Erdoziaren aurretik.

#### Kadeteak eta juniorrak

Kadeteetan Tafalla, Arroniz, Undiano, Legaria eta Lakuntzako lasterketek puntuatu zuten. Aralar klubeko Igor Arrieta txirrindulari uhartearra izan da txapelduna, Burundako Unai Aznar eta Aralarko Aitor Alberdi txirrindularien aurretik. Mendiko txapelketa Burundako Iker Mintegik irabazi du, Igor Arrieta eta Aralarko Inhar Astizen aurretik. Tartekako helmugan sailkapenean Mintegi bigarrena izan da. Bestalde, talde onenaren saria Aralar klubeko Intersport Irabia taldeak jaso zuen.

Bukatzeko, gazteen mailan Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberriak jaso zuen txapeldunaren saria. Horretaz gain, Iturmendikoa junior mailako Challenge Itaroa torneoko txapelduna izan da.

## Euskadi Murias taldea Irurtzunen

Euskadi Murias 2018an profesional kontinental mailako taldea izango da. Denboraldia prestatzeko taldea Irurtzungo Plazaola Hotelean kontzentratu zen asteburuan, Bizkaia Durango emakumezkoen taldearekin batera. Bertan zegoen Patxi Mundiñano etxarriarra, Muriaseko mekanikarietako bat. Tartean, Aralarren ibilbidea egin zuten.



Bi taldeak Aralarrera egindako txangoan. EUSKADI MURIAS

#### KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan

#### KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan

#### CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan %30 deskontua

#### IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€



# Galbario zahar-berritua

Ziordiko galbarioa 1976an kendu zuten. Urtetan galdutzat eman bazen ere, herritar batek zuen eta orain zaharberritu dute. Armas Christi gurutzea 1766 urtekoa da eta Ziordiko gurutze-bideko muturrean 210 urte egon ondoren, baldintza onetan dago

## ZIORDIA

Mendebaldetik sarrera zabal eta eroso du Ziordiak. Herrira iritsi aurretik, ibaia pasa berritan, bidegurutze bat dago. Toponimiaren arabera Galbario deitzen da inguru hori, ondoko kaxkoan gurutze-bideko galbarioa zegoelako. Galbarioa erlijio tokia izateaz aparte haur ziordiarren jolastokia ere izan zen urtetan, 1976an desagertu zen arte.

Galbarioa harri landuzko aldaire bat zen. Gainean egur landuko gurutze bat zegoen, Jesusen pasioa islatzen zutena. Eta guztia lau pilarek eusten zioten teilatu batez babestuta zegoen. Hura duela 41 urte bota zuten eta Serafin Agirrek hondakinaren artetik galbarioko haritzezko gurutzea jaso zuen. Bi gurdian hartu eta etxera eraman zuen. Zaharberritu eta gorde zuen. Hala, greziar gurutzea zena, luzera bereko besoak zituena, latindar gurutzean bilakatu zuen (segmenturik laburrena, handienarekiko hiru laurdeneko proportzioa du).

## Zaharberritzea

Gurutzea Fernando Fuste Marinen eskutara iritsi zen, eta Jose Ramon Anda eskultorearen eta egurraren ezagun handiaren aholkuekin zaharberritu du. Gurutzeak zituen pintura arrastoak, lehenik, desugertzailen baten kentzen saiatu zen. Ez zuen emaitzarik eman eta ura eta soda kaustiko nahasturarekin bizpahirutan emanda lortu zuen. Horrek akriliko berde, gorri eta, batez ere, marroien arrastoak agerian utzi zituen. Zura zikinkeriaz libre zegoen dagoeneko, eta landutako taillak ederki ikusten dira. Fustek argizaria eman dio eta itxura bikaina du gurutzeak orain.

Fustek zaharberritu duen gurutzeak 2,5 metro luze eta 1,1 metro zabal ditu. Gurutzearen enborren sekzioa 22 x 20 cm-koa da eta 82 kilo ditu. Armas Christi gurutzean Jesusen pasioan erabilitako tresnak erreprezentatuta daude. Ikonoen artean arantzadun koroa nabarmentzen da. 44 zulotxo zituen, arantzak irudikatzen duten makiltxoak sartzeko. Aipagarria da ere besoaren gurutzean dagoen bihotza, "horrelakorik ez dago beste inon. Aldeetan 5 cm-ko zulo bana ditu eta kokapen eta sakoneragatik geziendako dela pentsatu nuen, gogo-jardunetan halakoei otoi egiten delako".

Gurutzean INRI laburdura irakur liteke: Iesus nazarenus rex iudaeorum. Aipatu bi ikonoez aparte honakoak daude: hiru iltze (egun bi daude), gorpua gurutzetik jaisteko erabilitako bi eskailera (egun bakarra), bi zuzi (haietako bat urratuta dago, tiro edo puntadun kolpe batena izan litekeena), mailua, tenaza, pitxerra, azpila, soka, urki makila, Grial Santua, esku irekia eta ezpata.

## Iritzia

Fustek esan digunez, "Sakanan eta Nafarroan bakarra da, herrietako gurutzeak harrizkoak direlako. Dituen ikonoengatik eta besoaren osaeragatik ez dago parekorik; gurutze greziarra dirudi, baina ez da, beso bat beste hiruak baino motzagoa du".

**EGUNGO HERRIKO SARRERA EGITEKO PILAREKO ERMITA ETA GALBARIOA KENDU ZITUZTEN 1976AN**

Zaharberritzaileak zalantza du gurutzea dagoen moduan uztea edo zen modura eramatea. Azken aukera horren alde eginen balu, egun bertikalean dagoen enborra horizontalean jarri beharko luke eta horizontalean dagoena bertikalean. Azken beso horri zati batzuk falta zaizkio eta horiek egin beharko lituzke. Hori guztia eginen duen ez du garbi. Bai, ordea, gurutze gainean dagoen pieza ordezkatuko duela. Pipiak janda dagoen pago-egurrezko zatia da.

Ziordiarrek argitu duenez, "galbarioa ez da elizaren jabetzakoa. Ermita botatzean altzariak eskatu zituen, baina ez gurutzea. Udalarena ere ez da, elizari eraikinen balioa ordaindu zion, baina enpresei eraikinak botatzea agindu bazien ere, ez zuen harri eta egurren erreskaterik eskatu". Fusteren asmoa litzateke gurutzea Ziordiko elizaren barruan jartzea. Bestalde, gurutzearen zaharberritzea ikusi duten ziordiar batzuek gurutzearen eguna ospatzea proposatu dute.

## Gurutze-bidea

Bide hori egin eta bekatuak barkatzeko ohitura Jerusalem hasi zen. Baina fededun guztiak hara ezin zirenez joan, XVII. mendean Aita Santuak Frantziskotarrei gurutze-bideak egiteko aukera eman zien. Hasieran elizen barruan izan ziren. Baina gero kanpora atera ziren. Ziordiko galbarioa horren zatia zen.


Iturmendiko gurutze-bidean euskarazko testuak dituzten harrizko lau gurutze daude. Galbarioak ur bedeinkatuko harrien gainean agertzen dira ere Ergoienako zenbait ermitetan eta zenbait etxeetako ateburutan zizelkatuta daude. [+guaixe.eus](http://guaixe.eus)



Fernando zaharberritu duen gurutzearen eta haren jatorrizkoaren irudikapenarekin.



Ziordiko galbarioa elurretan. Goiko argazkian, galbarioa atzean ageri da. UTZITAKOA



Galbarioko aterpea, aldea eta gurutzea, orain zaharberritu dena. UTZITAKOA



Pakita errezititzen. LARRAITZ AMADOZ

## Mexikoko lurrikarak kaltetutakoak gogoan

Kultur jaialdian, poesia, txalaparta, argazki erakusketa eta liburu azoka izan ziren

### LAKUNTZA

Pakita Andueza Ezkurdiak antolatatu zuen elkartasun ekitaldia. Bera igo zen oholtzara eta Bingen Amadozekin batera errezititzen aritu zen. Anduezaren olerkiak Martin Larrazaren gitarraren doinuez lagunduta iritsi ziren publikoarengana. Iker Uribe-Etxeberriak eta Ismael Martiarenak txalaparta jo zuten. Jaialdiaren akaberan Anduezak eta Patxi Xabier Razkinek mariachi bat kantatu zuten. Kultur etxeko paretetan Chiapas eta Oaxacako argazkiez osatutako erakusketa egon zen. Mexikotik ekarritako hainbat liburu izan ziren salgai sarrera ondoan.

## Entzuleak nahi dituen irrati saioaren pasadizoak

"Idiot Txou" antzezlanaren eskainiko du Ados teatroak gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean.

### OLATZAGUTIA

Ados Teatroak aurten mustu du *Idiot Txou* antzezlanaren. Garbi Losadak zuzenduta, aktore eza-gunak izanen dira taula gainean: Javier Merino, Dorleta Urretabizkaia eta Asier Hormaza. Zuzeneko irrati-saio baten aitzakiarekin, gaurkotatuenaren umorezko analisia egiten duen komedia bat antzeztuko dute hirurek, egunerokotasuneko gai sakonak eta herriko albiste txikiak lantzeko aukera emanen die aktoreei. Inprobisazioak ezinbesteko papera hartuko du.

Aktoreetako bi irrati esatarien larruan sartuko dira eta bestea teknikariarenean. Kultur etxetik zuzenean ari dira saioa egiten, entretenimendu saioa izan nahi duena. Baina apenas dute entzulerik. Horrek haien kaleratzea ekar dezake. Irrati saioan parte hartzeko inork telefonoz hots egiten ez duenez, "aukera bakarra" geratuko zaie: ikusleekin hartu-eman izan eta entzule faltasuen rola hartuaz deiak jasotzen ari diren itxurak egitea, betetze lanetarako sikiera... Baina hori gertatzen den bakoitzean edukiak pikutara joanen zaizkie eta kaosa etorriko da, egungo albisteen umorezko kritika egiten bukatuz.

## Yllanak barre koktela zerbitzatuko du

25 urteurrena ospatzeko, larunbatean, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

### ALTSASU

Madrilgo Yllana konpainiak joan den urtean 25 urte bete zituen. Mende laurdena eszenak umorez betetzen. Eta urteurrena ospatzeko bere ibilbidean sortu dituzten ikuskizunetako eszena onenak, gag dibertigarrienak, obra bakar batean elkartu dituzte *Yllana 25* antzezlanaren sortuz. Lan bakar batean *666*, *Star Trip*, *Olimplaff*, *¡Muu!*, *Brokers* eta *The Gagfather* obretako zatiak bildu dituzte. Konpainiaren onena. Fidel Fernandezek, Luis Caok, Juan Fran Doradok eta Jony Eliasek jokatuko dute obra Altsasuko kultur gunean.

### Konpainiaz

Yllanak hasieran keinuen bidezko umorea lantzen hasi zen. Gaur egun arte eszenikoaren eta ikus-entzunezkoen alorretan antzeztan eta ikus-entzunezkoak sortu, ekoiztu eta banatu egiten dituzte, eta, beste alde batetik, kultur arloko hainbat proiektu garatu eta antzerkia egiteko guneak kudeatzen dituzte. Taldea honako hauek osatzen dute: Juan Francisco Ramosek, Marcos Ottone-k, David Ottone-k, Joseph O'Curneen-ek eta Fidel Fernandezek.



Aurtengo ferietako asteburuan preso dauden gazteei gutunak idatzi zizkieten.

## Altsasuko auziak eragindakoak adierazteko bidea

Narrazio labur, poesia eta mikro-ipuinen lehiaketa antolatu ditu plataformak. Ilbeltzaren 4ra arte aurkeztu daitezke

### ALTSASU

Altsasukoak Aske literatura lehiaketa deitu du izen bereko plataformak. Joan den urteko feriez geroztik bizi izandako guztia modu sortzailean adierazteko aukera eskaintzen du plataformak. Bi maila izanen dira 14 eta 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Eta bietan sortze lanak narrazio labur, poesia edo mikroipuinen moduan aurkezteko aukera izanen da, euskaraz edo gaztelaniaz idatziak.

Narrazio laburren kasuan, Altsasukoak aske lelopean idatzitakoak gehienez bi orrialde izan beharko dute. Poesiei dagokionez, 14 eta 30 lerro arteko poemak onartuko dira. Eta, azkenik, mikro-ipuinen kasuan gehienez 10 lerro izan beharko dituzte. Lehiaketara aurkeztutako lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztu beharko dira, eta testua ontzerakoan Arial letra

mota erabilia eta 12 puntuko hizki-tamaina.

Auzipetutako gazteen alde lan egiten duen plataformak jakinarazi du idazlanak ilbeltzaren 4ra arte aurkeztu ahalko direla. Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu behar dira: sobre handi batean lana sartu eta haren barruan, beste azal txikiago batean egilearen datuak. Lan guztiak Gurutze Saindua 36, 31.800, Altsasu, Nafarroa helbidera bidali behar dira, Altsasukoak aske lelopean. Literaturan adituak diren sakandarrek osatutako epaimahaiak maila bakoitzean bina sari emanen du: diploma eta Altsasukoak aske oparia. Sarituen berri ilbeltzaren 22an jakinaraziko da, hedabideen bidez. Sari banaketa, berriz, ilbeltzaren 26an izanen da, Gure Etxea eraikinean eginen den ekitaldi publikoan. Han lan sarituak irakurriko dira.

ABENDUAREN 3AN,  
17:00ETAN irwitzungo  
keiroldegian

SARRERAK: 6€  
martisuetan,  
estankon ETA  
pikusarrien  
SALGAI

PIRRITX  
PORROT  
MARINOTTS  
BOROBILEAN

WWW.KATXIPORRETA.EUS

Arbizu  
Embutidos y patés

Tradizioaren  
zaporea

www.embutidosarbizu.es

info@embutidosarbizu.com  
T. 948 460 628



Bertsolariak lanean. ARAKIL KULTURA

## Bertso-saio musikatu parte-hartzailea Ihabarren

Ihabarko kontzeju etxeko aretoa lepo bete zen larunbatean. Oskar Estangak eta Oihana Iguaranek bertaratutakoei parte hartzeko aukera eskaini zieten eta haiei kantatzeko hainbat gai eman zizkieten: Arakilen biztanle gutxi, nola erakarri jendea? Porrotx bilakatu zen Oskar, Pirritx Oihana. Edo Cospedaleta Errusiako ministro. Ondoren ihabardarrek afaria izan zuten.



## BAZTERRETIK

KATRIN GINEA

### Grabatzen!

Sorkuntza prozesu guztiak ideia batetik hasten dira. (...) Dena ideia batetik sortzen da, edo behar batetik ideia agertzen da, eta hortik aurrera prozesu luze bat dator. (...) Ideia hori ez da produktu final on batera iritsiko planifikazio eta koordinazio on bat ez baldin badago.

Gaurkoan ikus-entzunezko pieza gehienetarako balio duen prozesuaz arituko naiz, La Oreja de Van Gogh-en "Diciembre" bideo-klipean oinarrituta.

Urtarrila da, eta TAOM produkzio-etxeak nirekin harremanetan jartzen dira, esku artean duten lanaren berri emateko. (...) Nire eskuetan uzten dute ekoizpen prozesurik handiena. Ideia, gidoia eta tratamendua besterik ez dago finkatuta. Bideo-klipearen kasuan, taldea edo diskoetxea jartzen da harremanetan produkzio-etxearekin, lana enkargatu eta gidoilariak gidoia idatziko du. Hau da dagoen bakarra.

Bideo-klipearen gidoian suhiltzaileen egoitzean sute baten berri jasotzen dute, eta sutearen tokira joan behar dute su hori itzaltzera. Erik laguntzaile dudala, gidoiaren desglosearekin hasten gara. Sekuentziaz sekuentzia ditugun behar guztiak identifikatzen ditugu. Orduan telefono eta e-mail lanak hasten dira. Denbora handirik ez dut... Bilboko udal-etxeko segurtasunekoekin hitz egin, hauek suhiltzaileen nagusiarekin harremanetan jar nazaten. Hauen egoitzean grabatu beharra daukagu, hauen kamioi bat ere behar dugu, kamioia gidatuko duen suhiltzaile bat, eta hauek erabiltzen dituzten arropak ere, kasko eta guzti, noski.

Bailen kalean grabatuko dugu bideo-klipearen zati bat, eta horretarako kaleak moztu behar ditugu eta zoru publikoan gure ekipamenduak jartzeko ere baimenak eskatu behar ditut. Grabazioan ekipo tekniko guztia hor egongo gara, zuzendaria, kamera operadoreak, argi zuzendaria, lagun-

tzaileak, makilatzen duena... eta nola ez, aktoreak, poliziak, DYAKoak eta 30 figuranteak, beraz denak ondo lotua behar du.

Postprodukzioan digitalki erreko den etxea ere sortu behar da. Bilboko Film Commissionaren bitartez Papelera edifizioan bikote gazte baten loft moduko etxetxo sortu beharra daukagu. Paretak izango diren txapa-okumenak erosi, josi eta pintatu. Nire etxeko altzari erdiak hara eramanez. Atrezoko koadro, manta eta figurak erosi eta bertan ipini... Zuzendariari badirudi gustatzen zaiola.

Telefono dei eta e-mail gehiago... polizia munizipalarekin, figurazioa daraman enpresarekin, DYArekin...

*Katrin... erreko den eraikina behar dugu, zoaz baten bila...* Zuzendariak zerbait berezia duen eraikin bat nahi du. Faltsutu egingo dugu. Kanpotik erakutsiko dugun eraikina bat izango da eta barruko irudiak beste eraikin batean grabatuko ditugu. Beste bi baimen lortu beharko ditut. Barrutik grabatuko dugun eraikineko administratzaileak, hau Hollywood dela uste du. Tarteka

zezenak diruditen jendearekin topo egitea tokatzen zaigu, bai.

Aktoreak! Aktorerik gabe ez dago bideo-klip hau egiterik! Argazkiez baliatuz, hauekin harremanetan jarri, estiloa finkatu, orduak, garraioak... Eta azkenik, grabazio egunak iristen dira. Dena lotuta dago eta lasai egon beharko nuke, baina beti egoten da tripan nabaritzen dudana urduritasun punttu bat. (...) Magia egin eta ezbeharrari soluzioa jartzea izaten da nire lana ere.

Bat, bi, hiru plano... eta zast grabazioaren azken egunean gaudela!!! Dena bikain joan da, eta nire tripako txingurriek ez dute hemen egoteko arrazoirik izan.

Hemendik aurrera editorearen lana izango da garrantzitsua, honek muntaia egin eta efektu digitalak sartuko dizkio. Nik bitartean faktura guztiak hartu, txukundu eta karpetatxo batetan produktoreari pasatuko dizkio.

Warnerrekoek ikusi dute bideo-klipa eta badirudi gustatzen zaiela. Ondo egin dugu gure lana. Niri lan honen emaitza ona izateko inplikaturako guztiak eskerrak ematea besterik ez zait geldituko.

Osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

# ORAIN, HITZALDIA

Azaroak 25, 19:00etan  
Kultur Etxean, Etxarri Aranatz

# PRESOAK KALERA!


*baina nota?*



**Amaia Izko**  
Abokatua  
Egoera juridikoaz



**Xabier Alegria**  
EPPK mintzakide oihala  
Presoek egin duten apostuaz



## Orritzen eta Amalurren euskal dantzen jaialdia Irurtzunen

Udazkeneko dantza jaialdia larunbatean, 18:00etan, frontoian izanen da. 17:30an kalejira eginen dute

### IRURTZUN

Orritz dantza taldeko Oskia Ollakarizketak azaldu digunez, "Iruñeko Amalur dantza taldearekin harremana aspalditik dator eta behin baino gehiagotan aritu gara elkarlanean". Oholtzara iritsita Euskal Herriko dantzen eskaintza emanen dute bi taldeek, oholtzan tartekatuz. Hainbat lurraldetako dantzak eskainiko dituzte. Dantzaldiaren ondoren Pikuxar euskal txokoan afaltzera elkartuko dira.



Orritz taldearen ikuskizuna. UTZITAKOIA

### Ateak zabalik

Orritzen egun 35 bat dantzari daude. "Ikasturte honetan dantza berriak ikasteko helburua dugu". Ostiralero, 21:30ean entseatzeko dute, Atakondoa eskolako gimnasioan. "Dantzatzeko gogo duen edonor edozein egunetan guregana hurbiltzera animatzen dugu dantzaz gozatzeko".

Dantzariak euskal kultura sustatu eta zabaltzeko jarduna Orritz-Iskidi gazte elkartearen bidez garatzen dute. Hor dantzariak aparte, jende gehiagok parte hartzen du. Joaldun taldeari edota pertsonaia mitologikoei bizia ematen dietenak.

## Uriberena, abiapuntua

Kirmen Uribe idazlea Altsasun izan zen pasa den ostiralean. Haren azken eleberria, "Elkarrekin esnatzeko ordua" izan zuen hizketagai 75 literatur-zaleekin. Literatur-hizketaldia sei liburutegik elkarrekin antolatu zuten. Estreinak esperientzia positiboa izan da eta ez dute baztertzeko etorkizunean halako gehiago antolatzea, egoitza aldatuta.



## Trasteando Lakuntzan

Trasteando taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Taldeak garagartzaroaren 17an aurkeztu zuen Altsasuko herri kanten hirugarren disko bilduma. Lakuntzan hori aurkeztuko dute, kantari baterano altsasuaren laguntzaz. Baina diskoko kantuekin batera Espainiakoak, Euskal Herrikoak, Karibekoak ere emanen dituzte.



# SGAk argazki bikoteen lehiaketa antolatu du

Sakanako Garapen Agentziak antolatutako sariketan argazkiak binaka aurkeztu behar dira, garai batekoa eta egungoa. Garai bateko Sakana urteekin nola eraldatu den islatu nahi du martxan jarri berri den argazki lehiaketak

### SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) *Sakana, iragana eta oraina* argazki lehiaketa antolatu du. Hartan parte hartu nahi dutenek ibarreko toki esanguratsuei, paisaiei, ondareari, turismo baliabideei eta abarri egin beharko diete argazkia. Haiek denborarekin zein aldaketa izan duten islatzea da lehiaketaren helburua. Horretarako, parte-hartzaileek etxeko albumeko argazki bat hartu dezakete eta eduki bera duen argazki bat egin beharko du, iraganaren edo orainaren arteko eraldaketa islatuz. A maila da hori. Etxeko albumean argazki zaharrak ez duenak [www.sakanagaratzen.org](http://www.sakanagaratzen.org)-en bederatzi argazki ditu aukeran eta haietan oinarrituz parte hartu dezake lehiaketan. B maila da hori.

Argazkiak gaurtik abenduaren 15era arte aurkeztu daitezke. Parte-hartzaile bakoitzak gehien hiru argazki bikote aurkeztu dezake A mailan eta hiru argazki solte B mailan. Argazkiak JPG eta paper formatuan bidali beharko dira, gehienez A4 tamaina izan beharko dute. Paperezko argazkiak honako helbidera bidali beharko dira plika sistema erabiliz: Sakanako Garapen Agentzia. Utzubar industria gunea, 8, 31839 Arbizu (Na-



Etxeberrin idiekin lurra lantzen. UTZITAKOIA

farroa). Argazki digitalak gutxienez MB bateko tamaina izan beharko dute eta [info@sakanagaratzen.com](mailto:info@sakanagaratzen.com) e-postara bidali beharko da.

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak [www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com) web orrian eta SGAREN Facebook-eko profilerara igoko dituzte. Azken horretan bisitariak aukera izanen dute gustukoaren alde egiteko atsegin dut aukera sakatuz. Bi mailetan atsegin dut gehien duten bost proposamenen artean aterako dira sarituak. Baina

sariak epaimahaiak emanen ditu. Bi mailetan sari berak izanen dira: Canon EOS 1300D reflex argazki kamera eta Sakanako produktuez osatutako eguberritako zarea.

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak SGAREN esku geldituko dira, egoki deritzon jardura eta formatuan argitaratu ahal izateko, beti ere irabazi asmorik gabe eta egilea aipatuz. 16 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake; 16 urtetik beherakoek guraso edo tutorearen baimena beharko dute.

## Txiñerratxo, etxerako

Jose Luis Erdoziak idatzi eta 13 etxarriarrek antzeztu zuten "Txiñerratxo" lana. Bi emanaldiekin "oso gustora" gelditu dira guztiak. Erdoziak jakinarazi digunez, emanaldiak grabatu egin dira. Hura txukundu ondoren [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian ikusgai jarriko dute, Etxarriko Ahotsak atalean, testua ere han irakurtzeko aukera izanen da.





Altsasuko kooperatibatik atera ziren txirrundulariak. REBEKA

# Altsasuko kooperatibakoak bizikletan elkartasun erronka bati esker

Ricardo Abadek antolatutako erronka lastailaren 21etik 23ra izan zen eta Altsasutik pasatzen zen. Izan ere, bizikletaz Aretxabaleta eta Tafalla batu zituen. Ana Arza, Aritz Urizar eta Juan Cruz Bengoetxeak erronkan parte hartu zuten

Rebeka Mendoza ALTSASU

## 1 Nola izan zenuten erronkaren berri?

Juan Cruz. Tafallako kooperatibari Ricardo Abad kirolariak lan egiten du eta gainera gaixotasun arraro bat daukan pertsona bat gertutik ezagutzen du. Aurten, Fagor Ederlan Tafalla kooperatibak 10 urte bete ditu eta Abadi, hau ospatzeko, Tafalla eta Are-

txabaleta bizikletaz batzea bururatu zitzaion (145 km). Horretarako, lehenbizi Tafallatik Eskoriatzara oinez joan zen eta gero, buelta bizikletaz egin zuen, kooperatiben mugimenduaren sustatzaile Jose Mari Arizmendiarretak erabili zuenaren antzeko bizikleta batean. Bueltan, Nafarroan dauden Mondragon taldeko kooperatibak bidean laguntzea pentsatuta zegoen.

## 2 Zenbat animatu zineten?

Arza. Lau. Gaur hemen gaudenak gehi Juan Cruzen anaia.

## 3 Zein zati egin zenuten?

A. Altsasutik atera ginen eta Lakuntzan amaitu genuen.

## 4 Zergatik egin zenuten?

J.C. Laguntzeko. Lortutako dirua gaixotasun arraroak dituzten Nafarroako haurren te-

rapiak finantzatzeko eta haien bizi kalitatea hobetzeko izan zen.



## 5 Noiz izan zen?

A. Lastailaren 21etik 23ra. Azken egunean aritu ginen gu.

## 6 Horrelako erronka gehiagoetan parte hartu duzue?

Ez.

## 7 Erronkaren parte onak?

J.C. Oso egun polita izan zen, Abad fabrikara ailegatu zenean bertara sartu zen eta jendeak agurtu zuen. Horrek giroa berotu zuen eta gogoz hartu genuen erronka.

## 8 Eta txarrak?

J.C. Urizarrek bizikleta zualatu zuela eta bueltatzera derrigortu gintuela. A. Egia esan askoz gehiago egi-tea pentsatu genuen, baina azkenean gogoekin geratu ginen. Urizar. Jende gutxi animatu zela.

## 9 Berriz egingo zenukete?

Bai. Baina ez zaigu halakorik prestatzea bururatu.

## 10 Ricardo Abad ezagutzen zenuen aurretik?

Ez. Agian zertxobait baina sare sozialetatik soilik.

## 11 Zuen harremana Nafarroako beste kooperatibekin nolakoa da?

J.C. Egia esan, ez dugu harreman askorik.

A. Dena den, gaur egun Euskara Batzordea sortu dugu Nafarroako kooperatibetan euskara sustatzeko. Bestela, erronka egunaren ondoren, pasa den larunbatean, euskara sustatzeko asmoz irteera bat antolatua genuen.

## Bazkide sarituak

- M<sup>a</sup> Pilar Rellan Bautista (Altsasu)
- Uxua Azpiroz Armendariz (Lakuntza)
- Joseba Gorritxo Berastegi (Etxarri Aranz)
- Peio Alzueta Labiano (Irurtzun)

## AZAROKO SARIAK:

### 1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

### 2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



CAMPING  
 ARTAZA

Ekain berri

kaip

GAZTEZULO

lacturale